

DATORRENA

Ozeaniako herrien arteko aliantza
berria Kanakyn **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Mundua ez da hain handia
MIKEL ZUBIMENDI BERAESTEGI > 11

2019ko urriaren 26a | XIII. urtea • 643. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



PUTZUAK SORTZEA, NATURARI JUSTIZIA EGITEA

URMAELAK, PUTZUAK, HEZEGUNEAK. OSPE ESKASEKO ETA GARRANTZIA HANDIKO EKOSISTEMA ABERATSAK. HAMARKADEGAN SUNTSITUAK IZAN DIRA ETA DUTEN GARRANTZIAREN JAKITUN, AZKENALDIAN PUTZUAK SORTZEN ARI DIRA HAN ETA HEMEN ARANZADIREN LAGUNTZAZ. AZKENA, ATAUNEN. BERTAKO ESKOLAN, AUZOLANEAN, AITZURRAK ETA PALAK ESKUAN HARTUTA KITATU NAHI IZAN DUTE ZORRA NATURAREKIN **> 12** Juanan RUIZ | FOKU



**Hizkuntza gutxituak eta
hedabideak aro digitalean** 04

**Giza presioak eta eraikuntza lanek
uholde arriskua areagotu dute Ipar
Mazedoniako hiriburuan** 07

**Ataungo eskolan urmael bat sortu
dute auzolanean** 12

**Euskaraldiaren simulakroa
Arabako Lautadan** 18

**E.lkarrizketa: Judimendiko Gazte
Asanblada** 22

**Ordubete gehiago atsedenerako,
egun bat moldatzeko** 26

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 Maite Ubiria Beaumont:

Ozeaniako herrien arteko
aliantza berria Kanakyn

10 Ander Gortazar Balerdi:

Nakagin 1:1

11 Mikel Zubimendi Berastegi:

Mundua ez da hain handia

16 Alai Zubimendi

20 Gorka Zozaia: 10.000 urte 200
segundoan

21 Iker Barandiaran: Aurrez aurre

27 Maider Iantzi: Hiru ahizpa

27 Xabier Mikel Errekondo:

Barça-Real Madrid atzeratua!

30 Garazi Goia: «Brexit-free»



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Ozeaniako herrien arteko aliantza berria Kanakyn

Autodeterminazio eskubidearen auzia gori-gori dago Katalunian. Bartzelonako karriketan soilik ez, Herrialde Katalanetako bide eta plazetan ere askatasunaren aldeko askotariko olatuak altxatu dira azkenaldian. Batzuetan Mediterraneoa biziki harro azaldu da, eta itsas kolpe bortitzak jo du, esaterako, estatu biolentziaren mapan hitz larriz idatzitako Laietana etorbidean espainiar Poliziak duen oroimen latzeko komisariaren inguruan. Beste batzuetan, gozoago jauzi da, desobedientzia zibilaren ikonografi pluralaren baitan pasarte hunkigarriak marraztuz harean.

Itsasoa inoiz ez da berdina, baina, bere joan-etorri guztiekin, erreferente saihestezina da. Itsaso guztiek dituzte ur korronteak barnean, gehienetan ezkutuan, batzuetan agerian, erabateko urruntasunak gezurtatzen dituztenak. Azal ubeldurak eta zauri larriak, eta berriz min hau. Orena zein txarrena erakartzeko gai den sua borrairen legeari aurre egin nahian, bide batez argiak eta zalantzak piztuz.

Ideien konfrontazioa eta erabakitzeko eskubidea demokraziaren garapen gisa ulertu ordez, ariketok sedizioaren zakuan sartu ditu

Auzitegi Gorenak. Francoren deshobiratze formala eta estatu postfrankistaren homologazio demokratikoa lortze aldera 1978ko Konstituzioak aletu zituen oinarritzko eskubide politiko nagusiak hobiratzen dituen sententzia bata bestearen ondoren heldu dira. Erreboltarako arrazoiak biderkatu egin dira, horrela, Katalunian. Izan ere, azaleko erreakzioetatik haratago bidegurutze berriak sortzeko premia inoiz baino ageriago gelditu da, behinik behin Parlamentuari ezarritako mozala altxatzea xede.

Brexitaren auziak sorturiko itsas zakarraren testuinguruan, Edinburgoko Gobernuak olatu berria abiarazteko lehen keinua egin du. Berriz ere, Eskozia eta Kataluniako agendak, hatz puntekin bada ere, elkar ukitzen ari

dira. Hori bai, espainiar Estatuak azken berrogei urteotan lurralde auziari herritarren borondatea kontuan izango duen alternatiba politikoa emateko gaitasun falta baldarkeria osoz agertu ondoren, marko geopolitiko berean kokatuta dauden bi herrialdeon arteko distantziak siderala ematen du, gaur-gaurkoz. Bihar, auskalo.

Anartean, Ozeano Baretik badator deiadar berria. Frantziar Errepublikaren baitan jarraitzeko asmoa gailendu zen Kaledonia Berrian (Kanaky) 2018an egin zuten erreferendumean. 1998ko Noumeako Akordioetan adostu zutenenez, baina, Errepublikaren baitan jarraitzeko hautua nagusituz gero, beste bi erreferendum egitea beharrezkoa da erabakia irmo izan aurretik. Frantziaren baitan jarraitzearen alde direnek bozen %56,7 lortu ondoren, 2020eko udaran bigarren bozketa egingen dute.

Aldaketa garrantzitsua eman da Kaledonia Berrian: Ozeaniako beste leku batzuetatik bertara heldutako herritarrak ordezkatzeko dituen alderdi txiki bat independentziaren aldeko eremura batu da lehenengo aldiz

Ur azpian, gira bueltaka, alternantziaren taula bistaz apar artean galtzeko beldur, Pedro Sanchez usaintzen ari da bi bozketa inoiz ez direla berdina. Azken bi urteek, eta bereziki azken egunek, Katalunian arrasto berriak utzi dituzten bezala, Kanakyko paisaia ere aldaketak gertatu dira lehenengo erreferenduma egin zutenetik. Iragan maiatzean eginiko lurralde hauteskundearen ondoren, independentziaren aldeko borrokalari bat, Roch Wamytan, bilakatu zen legebiltzarreko presidente. Sakoneko korronte baten lehen seinalea ere heldu zen orduan: Ozeaniako herritarrak –hots, jatorriz kanakak ez direnak– ordezkatzeko duen alderdi txiki bat independentziaren aldeko eremuarekin lerrotu zen, itsaso berria zabalduz. •

BAZTERRA EDO AUKERA

Hizkuntza gutxituak eta hedabideak aro digitalean, mehatxutik aukerara

A kaniera, bosniera, Eskoziako gaelikoa, eskoziera, euskara, frisiera, irlandera, jorubera, kornubiera, kroaziera, kymruera, nederlandera, sardiniera, serbiera eta zuluera. Guztiak hizkuntza, guztiak gutxitu, XXI. mendeko mehatxu modernoan gatibu. Guztiak entzun ziren iragan astean Eskoziako hiriburuko unibertsitatean, Etxepare Euskal Institutuak eta Edinburgoko Unibertsitateak elkarrekin antolatu nazioarteko konferentzian.

HIZKUNTZAK / Aimar Etxeberria Korta

Eskoziako hiriburuan izan dute hitzordua hamaika hizkuntza gutxitu eta 30etik gora adituk, Etxepare Euskal Institutuak eta Edinburgoko Unibertsitateak elkarlanean antolatutako nazioarteko konferentzian. XXI. mendeko komunikazio sistema globalaren testuinguruan, mehatxuak eta aukerak izan dituzte aztergai.

Orotara, 30etik gora aditu, hizkuntza gutxituetako hedabideen inguruan solasean. Eztabaida akademiko eta profesionalak nonahi, unibertsitate ezberdinetako ikertzaileen eta hizkuntza horiek lanabes dituzten komunikabideetako profesionalen artean elkarla-

na bultzatu asmoz. Komunikazio eta kultura politikak; hedabideen ekonomia eta eremu digitala; telebistak eta Interneteko bideo plataforma berriak; audientzia, genero eta eduki azterketa; lurraldetasuna, hizkuntza eta nortasuna; eta hedabideak eta ge-

Hizkuntza gutxituek XXI. mendeko mehatxuen aurrean dituzten arrisku eta aukerak aztertu dituzte Edinburgon. ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

nero ikuspegia. Horiek eta beste hamaika landutako gaien artean.

Parte hartzaileen artean ziren, besteak beste, Elin Haf-Jones Galesko Trinity Saint David Unibertsitateko irakaslea, Rob Dunbar Edinburgoko Unibertsitateko zelta hizkuntzeta-katedraduna eta Margaret Mary Murray BBC Albako zuzendaria. Nor bere eremuan aditu, hizkuntza gutxituek aro digitalaren testuinguruan dituzten erronken inguruan jardun zuten.

XXI. mendeko komunikazio sistema globalak inposatu paradigma aldaketa izan zuen hizpide Haf-Jonesek. Paradigma aldatu izanagatik, baina, hizkuntza gutxituekin lan egiten duten hedabideen mi-



ALAN ESSLEMONT

TG4 TELEBISTA KATEKO ZUZENDARI NAGUSIA

sioaz galdegin zuen honek. Aldatu da? Aldatu behar du? Salatu zuenez, Galesen apenas duten konpetentziarik hizkuntzari bultzada emateko, anbizioa, baina, ez zaie falta; nazio mailan ezarri duten milioi bat galestar hiztun izatearen aldeko apustuaren berri eman zuen.

KALITATEZKO EDUKIAK

Eskoziako BBC Albak sorreratik gaur egunera arte izan duen bilakaera eta hedapena aldarrikatu zituen, berriz, Mary Murrayk. Urte luzez gaelikoa modaz kanpoko hizkuntzat hartua izatearen zama gainditu beharraz aritu zen, eta erronken artean eduki propioak sortzearen beharra aldarrikatu zuen, gaelikoz noski. Bada, baina, gaelikozko kateak egin eta errentagarri suertatu zaion apustu bat: emakumeen kirola, eskoziako ingeles hiztunak gaelikora gerturatzen dituen fenomeno. Orogen gainetik, baina, adierazi zuen kalitatezko edukiak eskaintzea dela arrakas-tarako formula seguruen.

Legegintzaz eta ikerketaz aritu zen, bestalde, Rob Dunbar. Hizkuntza gutxituak egituratzen dituen legislazio eskoziarraren zaharkitzea salatu zuen, berau aro digitalaren aurrekoa dela azpimarratuz. Legegintza arloaz gain, eremu akademikoa ikusten du ahul Edinburgoko Unibertsitateko irakasleak Eskozian. Inbertsio falta nabari du eremu horretan, jakintzagaian aurrera-urratsak egitea oztopatuz. Harri guztiak kanpora jaurti orde, baina, bi galdera jaurti zituen airera, gogoeta bultzatu nahian. «Aski era-kargarriak al gara? Aski gaitasun al dugu?». «*If there is a mission, and ambition...*».

«Irlanderaren pronostikoa Eskoziako gaelikoarena baino osasuntsuagoa da»

Sortzez eskoziarra, adopzioz irlandarra. Hizkuntza gutxituekin konprometituta, nola irlanderarekin hala Eskoziako gaelikoarekin. TG4 irlanderazko telebistako eta BBC Alba kateetako sustatzailea, inbidiaz begiratzen dio euskarazko hedabideek bizi duten egoerari.

Noiz eta nola sartu zinen hizkuntza gutxituen komunikabideen munduan?

Eskoziarra naiz sortzez, baina ez dut gaelikoa ama-hizkuntza. Sky uhartera lanera joan eta bertan ikasi nuen. Handik, lan eskaintza bat medio, Irlanda mendebaldera mugitu nintzen, eta bertan izan nuen lehen harremana telebistarekin. 1988az geroztik nabil lanean telebistan; Irlandako sektore independentean hasieran, TG4 irlanderazko telebista katean ondoren. 2007an, ordea, Eskoziara itzuli nintzen, BBC Alba martxan jartzen laguntzera. 2016 arte aritu nintzen jardun horretan; orduan, Irlandara itzuli eta TG4 telebista kateko zuzendari nagusi izendatu ninduten, eta gaur arte.

Zein da TG4 katearen xede nagusia?

Entretenezko eta informatzeko gaude batez ere, edozein telebista kate bezala. Horrez gain, baina, badaukagu eginbehar bat irlandar hizkuntza sustatzeari dagokionez. Modu bikoitzean lantzen dugu sustapen hori. Batetik, egunerokoa irlandaraz egitearen beldur diren horiek ahaldunduzen saiatzen gara. Bada 200.000 pertsona inguruk osatutako komunitate bat egunerokoan irlandaraz jarduten duena, txikia Irlandak dituen ia bost milioi biztanleekin alderatuta. Horregatik da garrantzitsua irlandaraz mintzo den komunitate txiki hori ahaldunduzen jarraitzea. Bestetik, ate bat zabaldu nahi diegu irlanderara irlandar nazioa



osatzen duten gainerako pertsonei. Estatistikek diotenez, 1,8 milioi pertsona jo daitezke irlandar hiztun pasibotzat. Hauek, orokorrean, ingeles elebakar batek izan dezakeen jarrera bera dute gurekiko; irlandar hiztun pasiboa izateak ez du esan nahi gugana gerturatzeke aukera gehiago dituenik. Eduki konkretu batzuk kontsumitzera gerturatzen dira gugana; izan daitezke kirol eta musika emanaldiak, edota dokumental bat –ingelesez azpitolatuta eskaintzen ditugu–. Hauek gugana gerturatzea oso garrantzitsua da irlandar hizkuntzaren garapenarentzat.

Nola egokitu da TG4 gero eta globalizatuagoa den mundu batera, non ingelesa den hizkuntza nagusia?

Ingelesa da irlandar Estatuko hizkuntza nagusia, baina baita hedabide globalizatuen artean ere. Horrek asko zailtzen du irlanderaren garapena. Ingelesez mintzo den irlandar Estatu independente bat daukagu, eta jendeak galdetzen du zein den irlanderaz hitz egitearen balio erantsia. “Irlandarra izan naiteke irlanderaz hitz egin gabe”, da gehiengoak pentsatzen duena. Horri aurre egiteko modu bakarra irlanderaren aldeko errekurtsuak eraikitzen jarraitzea da. Ildo horretan, irlandaraz jarduten duten 18-35 urte bitarteko herritarren publikoari begirako espazio berri bat estreinatu berri dugu. Baina onartu behar dugu Irlanda elebiduna izango dela, ingelesak bertan iraungo du eta. Gure eginbeharra da jendeak elebiduna izatea gauza positiboa dela pentsa dezan arrazoi nahikoa sortzea.

Eta bizi garen aro digitalari dagokionez, arrakastatsua izan al da zuen egokitzapena?

Ikusle kuotari erreparatuta, Errepublika mailan zazpigarren telebista ikusiena

«Ingelesez mintzo den irlandar Estatu independente bat daukagu, eta jendeak galdetzen du zein den irlanderaz hitz egitearen balio erantsia. ‘Irlandarra izan naiteke irlanderaz hitz egin gabe’, da gehiengoak pentsatzen duena»



GAUR8

izatetik seigarrena izatera igaro gara berriki. Beraz, termino kuantitatiboetan lehiakorrak garela esan dezakegu. Telebista britainiar handi guztiak ditugu Irlandan, eta BBC2 edota Channel4 bezalako kateen gainetik gaude. Ildo horretan gauzak ondo doazela esan daiteke, beraz. Aro digitalari dagokionez, ahalik eta eremu gehienetan lankidetza zubiak eraikitzea da gure estrategia. Esate baterako, lankidetza etengabea gaude RTÉ Irlandako irrati-telebista kate publikoarekin. Helburua argia da: gero eta jende gehiago dago pantaila bati begira, bada horiek irlandera dauden edukiekin bete nahi ditugu. Ditugun indarrak ez dira nahikoak helburu hori gure kabuz betetzeko, horretarako bultzatzen ditugu lankidetzak; irlandera azko edukiak ahalik eta gehien zabaltzeko.

Ekoizten al duzue eduki propiorik? Edukiak sortzeaz baino, hauek emateaz arduratzen gara. 80 enplegatu dituen telebista bat gara, eta gure lana estrategiak diseinatu eta garatzea da. Eskaintzen dugun ia eduki guztia

mandatuz jasoa da; herrialde osoko ekoizle independenteei erosten dizkiegu edukiak. Jarduteko modu honek abantaila ugari ditu guretzat. Aipatu ekoizle independenteei, gainera, guretzat lan egiteaz gain nazioarteko mailan ere egiten dute. Alde guztiek irabazten dute, beraz, formula horrekin. Hasi ginenean, esaterako, gudanako beharrian handiegia zuten horietako batzuek, baina erabat independenteak dira egun.

Osoki Eskoziako gaelikoz den BBC Alba katearen sortze prozesuan ere lagundu zenuen. Zein antzekotasun ikusten dituzu irlandararen eta gaelikoaren artean? Eta nola ikusten duzu euren etorkizuna? Antzekotasun handiak daude bi kasuen artean, baina baita ezberdintasunak ere. Nola Irlandan hala Eskozian ingelesa da hizkuntza nagusia, populazioaren zati handienak hitz egiten duena; ez da gehiago existitzen irlandar edo eskoziar elebakarra den pertsonarik. Badira Irlanda eta Eskoziako mendebaldeko

komunitateen arteko antzekotasunak ere. Eta BBC Alba sortu genuenean, TG4 katearen eratze prozesuan ezarri genuen helburu bera jarraitu genuen: gaelikoa eguneroko hizkuntza duten horien beldurra uxatu eta aipatu komunitatea ahalduntzea.

Egoera, baina, ezberdina da bi herrialdeotan. Gaelikoari dagokionez, orain gutxi arte apenas zuen aitorturik inolako eskubiderik, eta hezkuntza sisteman ere apenas du espaziorik. Horregatik, esan daiteke eskoziar hizkuntza irlandera baino posizio arriskutsuagoan dagoela. Izan ere, Estatuaren aldetik hizkuntzak jaso duen babesa handiagoa izan da Irlandan, nahiz eta askotan hitzetatik ekintzetara igarotzea kostatu, batez ere inbertsioei dagokienez. Azken hoge urteotan, baina, aldaketa handia nabaritu dut zentzu horretan; hazkunde handia bizi izan dute irlandera azko hedabideek, eta urrats handiak eman dira hezkuntzan. Ildo horretan, nahiz eta bi hizkuntzen artean antzekotasunak eman, babes publiko handiagoa jaso du irlandera. Horregatik diot irlandararen pronostikoa Eskoziako gaelikoarena

baino osasuntsuagoa dela uneotan; gaelikoak zailtasun pila bat ditu aurretik.

Zein da TG4 kateak irlandarari egin dion ekarpen nagusia? Uste dut telebistak, gainerako hedabideekin alderatuta, baduela balio erantsi bat komunitatearen eraikuntzan. Hizkuntza bat *mainstream* [nagusi] bilakatzeko gaitasuna dauka telebistak, estatus bat ematen diolako honi. Hori da hain zuzen guk egiten duguna: irlandera normalizatu eta, aldi berean, estatus bat eman. Egiten dugun horrek hizkuntza salbatzeko balioko ote duen, gure jardunarekin baino, gehiago dauka zerikusia komunitatearen indarrarekin. Herritarrak ahalduntzea da gure eginbeharra, baina pertsonala da azken erabakia; norberak erabakitzen du ingelesez edo irlandera hitz egin. Erabaki hori telebistaren kontrol mugetatik at dago.

Hainbat euskal hedabideren esperientziak ezagutzeko parada izan duzu egunotan. Nola ikusten duzu euskal komunikabideen eta euskararen egoera? Uste dut euskal hedabideak oso garatuak daudela. Hedabideon gainean egiten den ikerketa akademikoa ere, Irlanda edo Eskoziako egoerekin alderatuta, egoera hobean aurkitzen da. Badira nazio-estatu izan nahi duten herrialdeentzat bandera eramaileak diren hizkuntza gutxitu batzuk, eta horietako bat da euskara. Zentzu batean, nazio-estatu ez izateak lagundu egin diezaioke hizkuntzari, beste arrazoi bat gehiago izan daitekeelako hizkuntza bat ikasteko orduan. Irlandaren kasuan, gutxiago egin da irlandararen alde Estatuaren fundazioaz geroztik, ikusi baita honek funtzionatu dezakeela, oso irlandarra izanik gainera, ingelesez. Konferentzia honetan entzundakoak entzunda, liluratuta geratu naiz euskaren alde egiten ari zareten guztiagatik. Uste dut asko daukagula ikasteko; gertutik jarraituko zaituztet.

SKOPJEKO MENDIA

Giza presioak eta eraikuntza lanek uholde arriskua areagotu dute Mazedoniako hirian

📁 **INGURUMENA** / Miguel Fernandez Ibañez

Eguzkia egiten duenean mendizalez, txirrindulariz eta 1.000 metroko altueran piknikak egitera gerturatzaren diren familiez betetzen da Vodno mendia, mazedoniarrez, “Mendi Umela”. Skopjeko ikurra da Vodno mendia, baita Ipar Mazedoniako hiriburuarentzat funtsezko gunea ere, aisialdi eremua izatetik harago, ezbehar naturalengatik babesten baitu.

Ez da, beraz, harritzekoa, 6 urte zituenetik Vodnora igotzen den Mira Bekar kezkatuta izatea egun mendiaren etorkizunagatik. Izan ere, Ipar Mazedoniak aspaldian izandako gobernu guztiek jarri dute arriskuan bertako bioaniztasuna, eta, bide batez, baita Skopjeko hainbat auzo ere, euriteek izugarri gogor kolpatzen dituztenak.

HAZI, EDONOLA ETA EDONORA

Vodno mendiaren eta Skopje-ren arteko talka gizakiaren noraezaren erakusle da. Skopje

izugarri hazi da azken hamarkadotan. Duela mende erdi eskas 100.000 biztanle zituena, egun milioi erditik gorra. Hazkunde hori mendez mende lurrotan bizi izan direnek kontuan izandako logikaren guztiz aurkakoa da.

Skopjetik pasatako herri eta inperio guztiak Vardar ibaiaren ezkerreko ertzean finkatu izan dira historikoki, xede jakin batekin: eskuineko ertzean sarri ematen diren uholdeak ekiditea. 1963ko

Inork ez du jada Vardar ibaian bainurik hartzen. Eta ez da lur kolorea duen uragatik. Shishevoko Treska lakua eta Sarajeko kirolgunea ere hutsik daude ia-ia, Skopjeko biztanleak bertara joaten ez direlako. Vodno mendia, Ipar Mazedoniako hiriburuaren ezbehar naturalen aurkako defentsa, arriskuan da espekulazioaren ondorioz.

uholdeek hiriaren %75 suntsitu ostean, baina, eskuineko ibaiertz aldera hazten hasi zen hiri paradoxikoki.

Lehen urteetan, herritar txiroenak, etorkinak, gutxiengo etnikoetako kideak hasi ziren ibaiaren eskuinaldean finkatzen. Ostean, elite eslaviarra iritsi zen. Horrela bada, eskuineko ibaiertzaren gainean den Vodno mendia-ren magala, hiriburuko luxuzko auzoa bilakatu zen; bere harrotasuna erakutsi nahi


zuen mazedoniar orok, erakundeak tartean, bertan erai-ki behar zuen, bai ala bai.

EUROPAKO HIRI KUTSATUENA

Panorama Hotelaren ondoan elkartu gara Mira Bekarrekin, mendira eramaten duen sarrera nagusia. Unibertsitateko irakaslea da, baina “I Love Vodno” erakundearen izenean etorri da hitzordura.

Erakundearen borrokaren emaitza gazi-gozoa izan da orain artean: Gobernuak Vodnotik pasa behar den gas-hodi baten zabalera murriztea onartu du, 10.000 zuhaitz ez botatzea lortuz, baina mendia higatzen ari diren hainbat proiektuekin buru-belarri jarraitzen du. Hori guztia, gainera, non eta Europako hiri-rik kutsatuenaren birika den mendian. Skopjeko kutsadura aztertzean, kontuan izan behar da Ipar Mazedoniako hiriburua mendiz inguratuta dagoela. Hori dela eta, mendiek ez diote hiriaren gainean pi-

Ipar Mazedoniako Skopje hiriburua, Vodno mendiko tontorretik ikusita.
M.F.I.



latutako aire kutsatuari irte-
ten uzten.

«Ez nain ingeniaria, baina
adituek diotenez kaltea han-
dia izango da. Gas-hodiaren
eragina ez da berez hain han-
dia izango, baina kontua da
beste mehatxu asko ere pai-
ratzen dituela jada Vodno
mendiak. Ez da proiektu ba-
karraren kontua, guztiena
baizik!», dio kezkatuta 44 ur-
teko emakumeak.

Inguruan egindako lehen
eraikin handia Milurteko Gu-
rutzea izan zen, 66 metroko
altuera duena eta Skopje
gauero argizatzen duena.
2002ko proiektua da, eslavia-
rren eta albaniarren arteko
liskarrak nahiko bare ziren
garaian egindakoa, kristauta-
suna Mazedoniari iritsi zene-
tik 2.000 urte betetzen zirela
ospatzeko. Gero iritsi ziren
1.000 metroko telekomuni-
kazio dorre izugarria eta Sun
City luxuzko urbanizazioa.

Azken proiektua, nahiko
aurreratuta dagoena, Kosovo-
tik Tetovora, Gostivarrera eta
Kiçevora doan gas-hodia da.
Gobernuak 2018an ekin zion
eraikitzeari, inori ezer esan
gabe. «Matkako arroilara bi-
dean zihoazela ohartu ziren
mendizale batzuk», gogoratu
du Bekarrek, Vodno inguruan
egiten ari garen txangoan.
Makina zulagailuak eta natu-
ra hila nagusi dira inguruan.

AITZAKIA, LUR PRIBATUAK

“I Love Vodno” erakundea
2013an hasi zen lanean eta
gas-hodia eraikitzeko bost al-
ternatiba aurkeztu zituen,
baina guztiek lur pribatuak
zeharkatzen zituzten, Ipar
Mazedoniako legearen arabe-
ra desjabetu ezin daitezkee-
nak. Aldiz, lur publikoetan
posible da “aberriaren intere-
sen mesedetan” proiektuak



egitea, eta gas-hodiarena ere
hor sartzen omen da.

“I Love Vodno”-ko kide Ivan
Blinkovek adibide bat eraku-
tsi digu Google Earth erabili-
ta: «Emakumezko batek Ko-
monavarako errepedearen
proiektua zazpi urtez oztopa-

Mira Bekar «I Love
Vodno» erakundeko
kidea, mendia
zeharkatuko duen
gas-hodia eraikitzeko
lanak eragiten ari diren
txikizioa erakusten.
M.F.I

tzea lortu zuen, bere partzela
saltzeari uko eginez. Azkene-
an ibilbidea aldatu behar
izan zuten familia bakar ba-
ten ezetzagatik. Bada, orain,
historia bera errepikatzen ari
da gas-hodiaren kasuan. Lur
pribatuak desjabetu beharko

lirateke, baina legeak ez du
hori baimentzen».

Cirilio eta Metodio Santuen
Baso Ingeniaritzako Fakulta-
tean irakaslea da Blinkov.
Blinkov bera eta Bekar bat
datoz legeak aldatu egin be-
har direla esatean, baina, ba-
tez ere, Vodnon edozein akti-
bitate debekatzeko lege bat
bultzatzearen beharra azpi-
marratzen dute. Izan ere,
mendiaren zati bat babestu-
tako parke naturala da, baina,
bestea, gizakiek guztiz hartu-
ta dute, beren asmo pribatuen
mesede.

Legeak lege, hori bai, beti
daude politikariek baliatzen
dituzten zirrikitu legalak,
Sun City urbanizazioaren ka-
suan gertatu zen bezala. «Au-
rreko gobernuak babestutako
eremuaren mugarriak aldatu
zituen urbanizazioa eraiki
ahal izateko. Lege bat egonik
ere, mugak ez daude ondo ze-
haztuta eta aldatu egin dai-

AZKEN AURREKARIA, DUELA BI URTE

2016ko abuztuaren 6an, euriteek, metro
karratuko 93 litro bota zituen, Skopjeko
zenbait auzo eta inguruko herrixka
batzuk urpean utzi zituzten. Skopska
Crna Gora menditik behera jaisten zen
erreka hiriburua zeharkatzen duen
autobideraino iritsi zen, baina
agintariek ez zuten trafikoa moztu.
Emaizta ikaragarria izan zen: 23 hildako.

Ivan Blinkov unibertsitate irakasleak
gogoan ditu 24 ordu odoltsu haiek.
Horregatik, prebentzioa eskatzen du,
Skopska Crna Gora mendiko
hondamendia errepika ez dadin.
Hondamendiaren ostean, mendia
higadura-eremu izendatu zuten. Beste

behin ere, berandu. Vodno mendia ez da
hain arriskutsua, ez baita hain altua eta
baso gehiago baititu. «Baina tamaina
horretako euriteek beheko magal osoa
urperatuko lukete, bideak ibai bilakatuz
eta dena eramanez, tartean herritarrak».

Arriskua nabarmena da eta Skopjeko
hiritarrek ez dute ahaztu 2016an urpean
geratu zela hiriaren erdiguneko Teresa
Kalkutakoaren Etorbidea. Blinkovek Sun
City urbanizazioan uholde batek izango
lukeen eragina ere erakutsi digu mapa
baten laguntzaz. Gero eta agerikoagoa
den krisi klimatikoa kontuan izanik, bai
berak bai Mira Bekarrek argi dute:
prebentzioa da gakoa.

tezke gobernuak nahi izanez gero», dio Bekarrek. Ildo horretan, argi utzi du ez direla agintariez fio, eta, horren erakusle, Vodno mendia eta Matkako arroila babesteko antolatutako mahaira ez dituztela “I Love Vodno” erakundeko kideak gonbidatu nabarmendu du.

TITOREN GARAIA, PARKE NATURAL

Vodno basoz betatako mendia izan zen nekazaritzak, abeltzaintzak eta neurririk gabeko zuhaitz mozketak malda guztia lugorri bihurtu arte, batere landarerik gabeko guneko. Ostean, higaduraren ondorioz, uholdeak ugaltzen hasi ziren mendiaren magalean, Vodno menditik behera erortzen ziren ur-jauzi ikusgarrien eraginez.

1951ean, mendiaren magalean ia inor bizi ez zenean, euriteek hildako bat, hainbat zauritu eta azpiegiturretan kalte handiak eragin zituzten. Hurrengo urtean bertan, garaiko Jugoslaviako Gobernuak berehalako erabakia hartu zuen: Serbia, Kroazia, Eslovenia, Bosnia eta Mazedoniak osatzen zuten Federazioak babestutako parke natural izendatu zituen Vodno mendia eta inguruak. Abeltzaintza eta nekazaritza guztiz debekatu zituzten eta, zuhaitzak berriro landatzeaz gain, uraren drainatze eta kanalizazio lanak agindu zituzten. Beharrezkoa izanez gero mendiari eusteko lanak egitea ere aurreikusi zen. Hala ere, orduan aurreikusitako hainbat azpiegitura osatu gabe daude ia zazpi hamarka eta gero.

«1960ko hamarkadan ez zegoen behar beste dirurik proiektua osatzeko. Badaude toki batzuk, batez ere Jauregi Presidentzialaren inguruak, non oso ondo egin zen urbani-

zazioa, kanalizazioa barne. Baina beste hainbat tokitan, Kise-la Voda auzoa tartean, ez. Ondorioz, euriteak daudenean, ura hiribururaino iristen da kaleetan behera, etxeek kanalak ixten dituztelako edo ez delako kontrol-azpiegiturak», azaldu du Blinkovek. Unibertsitateko irakasleak badaki zertaz ari den eta, zalantzak argitzeko, Google Earthera jo du berriro naturaren haserre-

Skopje hiriburuaren ikurra izateaz gain, Europako hiririk kutsatuenak duen birika nagusia ere bada Vodno mendia. Pairatzen ari den higadura oso arriskutsua da hiriarentzat

Skopjetik pasatako herri guztiak Vardar ibaiaren ezkerreko ertzean finkatu izan dira eskuineko ertzeko uholdeak ekiditeko. Azken urteotan, baina, hiria eskuin ertzerantz joz hazi da

Milurteko Gurutzea eta telekomunikazio dorre erraldoia Vodno mendiaren tontorrean bertan eraiki dituzte. Hori bai, ez dira inolaz ere inguruak azken urteotan jasandako eraikuntza lan bakarrak. M.F.I



aldiek gogorren kolpatzen dituzten gunek erakusteko.

ERAIKINEN KALITATEA, ZALANTZAN

Auzian bada funtsezko beste kontu bat ere: eraikinen kalitate zalantzarria. Bekar bera, makina bat mazedoniar bezala, ez da fio. «Ni neu Vodnon bizi naiz eta euri asko egiten duenean errekek sortzen dira kaleetan. Panorama Hotelaren inguruan zen eraikin bat ia guztiz erori egin da. Jendeak badaki hainbat eraikin ez direla behar bezala eraiki», gaineratu du.

Blinkovek, oster, tentu handiagoarekin hitz egiten du. «Ingeniari zibilei eraikinen egonkortasuna tentuz aztertze gomendatu diet. Baina lan handia da eta diru asko behar da. Lurra zulatu gabe ezin dute diagnostiko zehatzik eman», onartu du. «Hala ere, oro har,

proiektuei oniritzia eman dieten institutuak fidagarriak dira, egia baldin bada ere Nikola Gruevski presidentearen garaian 5-10 urteko epe bat egon zela non eraikuntza proiektuek ez zuten inolako kontrolik igarotzen onartuak izateko».

Kontuak kontu, zalantzarik ez dago Skopjeko birika den Vodno mendiaren egoera kezkatzeko modukoa dela egun. Etengabeko eraikuntza egitasmoek egoera okertu besterik ez dute egiten, batez ere eurite garaietan. Horregatik, askok uzte dute ezinbestekoa dela gunea erabat babestu eta eraikuntza lanekin amaitzea. Blikov bera da horietako bat. «Ez dut uste gertatuko denik, baina Vodno guztia higaduragune izendatu eta gehiago ez eraikitzea nahiko nuke», amaitu du irakasleak.



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Nakagin 1:1

Duela hilabeteko zutabeen etxebizitza batek bete behar dituen bizigarritasun-baldintzei buruz hitz egin nuen, Eusko Jaurlaritzaren dekretu zirriborroaren harira. Aipatzen nuen infraetxeak ekiditea zela helburua, eta gaur, hego haize marxistak jota, Grouchoaren esaldi batekin egingo diot zuzenketa nire buruari: «Nire printzipioak hauek dira, baina gustatzen ez bazaizkizu badituz beste batzuk».

Etxebizitza minimoa izango dut hizpide gaur, kasu oso berezi bat zehazki: Tokioko Nakagin kapsula-dorrea. Kisho Kurokawa japoniarraren lana da Nakagin, mugimendu metabolistaren ikur nagusia. Testuinguru apur bat: Japonia, Bigarren Mundu Gerra ondorengo berpizkunde kulturala, hirien eztanda demografikoa, etxebizitza eskari erraldoia. Metabolistek hiri dinamiko eta aldakor bat aldarrikatzen zuten, ez-estatikoa, beharren arabera modu organikoa hazi zitekeen mega-hiria. Bi elementuren baturak soilik sor zezakeen hiri-utopia hori. Alde batetik, azpiegitura edo mega-egitura zegoen, Archigramek Europan proposatzen zuen ildotik; bestetik, kapsularen ideia, alegia, modulua, unitatea, zelula.

Nakagin elkarri lotutako hormigoizko bi dorrek eta haiei helduta dauden 140 modulu aurrefabrikatuk osatzen dute. Txikitxoak dira kapsulak -2,5 x 4- langile ezkongabearentzat pentsatuak -Florencio Mokoroaren Donostiako "La casa de los solteros" moduko bat baina distopia dosi handiagoarekin-. Hasierako proiektuan, biztanleen behar espazial aldakorretara moldatu ahal izateko, moduluak elkarri lotu ahal izatea aurreikusten zen espazio



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

handiagoak lortzeko. Ideia hori, baina, ez zen sekula garatu eta soltero-entzako zelula estatikoekin konformatu behar: 10 metro karratu, armairuek eta etxetresnek osatzen duten horma, hegazkineko komun tamainako bainugela eta ohea, leiho zirkular ikoniko bat gainean duela.

Garai bateko kultura-eredu baten aztarna bizia den heinean, interesgarria da Nakagin, baina bizilagunak dira aztarna hori sufritzen dutenak: eraikinaren egoera kaskarra eta amiantoari beldurra tarteko, bizilagunek eraikina botatzearen alde egin zuten, dorre berri batek ordezkia zezan. Nahi gabe, nazioarteko eztabaida sutsu bat piztu zuten dorrea mantentzea defendatzen zutenen eta eraistea

nahiago zutenen artean. Nola uzartu mugimendu metabolistaren lan eraiki nagusiak merezi duen erresetua eta bizi-baldintza duinak? Hori hor arkitekturaz eta ondareaz ari garela maiz errepikatzen den dilema.

"Mugak" arkitektura bienalaren testuinguruan, Atari Kultura Arkitektonikoak "Nakagin 1:1" ekimena aurkeztu du, eta kapsularen tamaina errealeko erreplika bat kokatu du Donostiako portuan, Nautiko ondolan, gaiaren inguruko tailer eta hitzaldiz lagunduta. Ikur metabolista hau ezagutu nahi baduzu, bisita gidatuak ostegunetik igandera 19:00etan (baita 12:00etan ere asteburuetan), eta, begiratu soil bat eman nahi badiozu *voyeur* japoniar baten moduan, leihotik zelatatu ahalko duzu abenduaren 12ra arte. •

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Mundua ez da hain handia

Hala da, azken buruan, mundua ez da hain handia. Milaka kilometroko distantziara egon daitezke, itsaso eta hizkuntza ezberdinak izan, baina bada lotzen dituen hari bat, badira inspiratzen dituzten ereduak, kutsa-

korra den aldarte global bat.

Bada zerbait hor nonbait. Bartzelonan izan ala Quiton, Beiruten ala Santiagon, Port au Princen ala Hong Kongen, Aljerren, Londresen ala Bagdaden, protestaren haizeak harrotuta dabiltza oso. Milioi ka manifestari, hildakoak, zaurituak, kale borroka, larrialdi egoerak... protesta mundu-mailakoa da, hainbat sistema desafiatu dituena. Eta taktika berriak erabiltzen dituen belaunaldi berri bat da protagonista.

Ez da erraza, ezta erratzeko arriskurik gabea ere, hain protesta ezberdinak lotzen dituzten faktore komunak bilatzen saiatzea. Masa mugimenduok berezko kausa eta ondorioak dituzte, berezko helburu eta metodoak, baina badi-tuzte dinamika partekatuak ere. Modu batean ala bestean, urteetan berotzen egondako presio-el-tze ekonomiko eta politikokoak lehertu egin dira. Txinparta Whatsappeko mezuei ezarri nahi izan dioten zerga izan liteke, edo epai bat, edo metro txartelen garestitzea, edo gasolinari dirulaguntza publikoak kentzea. Baina, azkenean, beren hizkuntza propioan eta egoera zehatzetan, «iraultza! iraultza!» oihukatzen bukatzen dute guztiek. Eta ez zehazki «irribarreen iraultzen» zentzuan.

Protestokin, baina, hipopotamoarekin gertatzen dena gertatzen da. Ur gainean begi eta belarri txikitxoak ikusten zaizkio, baina, gero, ur azpian, gorputz erraldoia du. Albistegietako iskanbilen irudi errepikatuetatik haratago, erroan, desberdinkeria ekonomiko beldurgarriak eta herri bezala politikoki adierazteko askatasun falta ageri dira. Sumindutako jendeak sistema politikoa tranpa bezala ikusten du: zepoan atrapatuta baleude bezala ikusten dituz-

te beren buruak. Beren ahotsak kontuan hartuak izatea eskatzen dute, baloratuak izatea. Eta gober-nuek ez dute entzuten, eta, entzutean, soilik biolen-tziarekin zerikusia duten hots eta kontuak entzuten dituzte. Dena ordenu publikora, eskuliburu antite-rroristaren erabilerara, mugatuz.

Borrokok, gainera, elkar inspiratu egiten dira sa-rri. Nola antolatu eta helburuetara nola gerturatu elkarrengandik ikasten dute, nahiz eta jakin ez dire-la berdinak, ez dituztela agenda eta estrategia ber-dinak. Baina badago, horixe badagoela, beren bo-rondatea adierazteko nahikoa espazio politikorik ez duten herriaren artean nolabaiteko elkartasun bat, edo, nahi bada, sinpatia bat.

Katalunia eta Hong Kongen artean egin da ikusga-rrori hori, baita Madril eta Pekinen hitzetan ere. Bru-ce Lee handiaren hitzak –“ene lagun, izan zaitez ur”– ongi ikasi dituzte nonbait. Egoera berrien au-rrean ura bezain arin, jariakor eta moldakor izateko

Ez da erraza munduan zehar ematen ari diren protesten faktore komunak bilatzea. Xede, metodo eta kausa propioak dituzte, baina baita dinamika partekatuak ere

beharra. Aireportuak hartu eta kolapsatzea, mezu-larritza enkriptatua oinarri izanik erabiltzaileen fi-dagarritasuna eta konfiantza bermatzen duten apli-kazioak erabiltzea, laser-erakusleak baliatzea edo buruan kasko horiak jartzea, adibidez, Kataluniako lagunek Hong Kongen ikasi dutela dirudi.

Denok ikas dezakegu elkar fidatzen den jendearen ekintzen balioaz. Askotan kontua ez da erakunde berri, hierarkia eta lidergo kontua, irauna eta segida duten dinamika asmatzearena baizik. Estrategia baten jabe, erantzuna eta olatua altxatzen dutenak. Protagonista, antolaketa eta erresistentziarako inoiz egon den potentzial handiena duena: giza jen-de arrunta. •



«PUTZUAK SORTZEA NATURARI JUSTIZIA EGITEA DA»

Amagoia Mujika Telleria

Urmaela ez da ura duen putzu bat bakarrik. Ekosistema aberatsa eta espezie askorentzat beharrezkoa da. Ataungo Joxemiel Barandiaran eskolako hurrek, gurasoek eta irakasleek palak, aitzurrak eta eskuareak hartu eta hezegune bat sortu dute eskolatik hurre, ikusteko eta ikasteko laborategi natural bizi-bizia.

Ataungo Joxemiel Barandiaran eskolan urmaela bat dute duela astebetetik. Auzolanean egin dute gurasoek eta hurrek, Aranzadi Zientzia Elkarteko adituen laguntzarekin. Eskuak eta hankak lurtean sartuta sortu dute eskolaren albo-alboan ur putzu bat, hesiz itxitako hezegune bat. Oraindik, akaso, «ur marroiz

betetako putzu itsusi samar» bat baino ez dute ikusiko. Laster, ekosistema aberatsa, bizitza iturri oparoa eta laborategi natural bizi-bizia izango da seguru.

Baina, zer da urmael bat? Aranzadi Zientzia Elkarteko Iñaki Sanz-Azkuek, Ion Garin-Barriok eta Iñaki Mezquitak gidatu dituzte Ataungo lanak. Eta, hain justu, lanean hasi aurretik, Sanz-Azkuek azalpen labur bat egin du eskolan, urmael bat urez betetako zulo batetik harago, hezegune batetik harago, ekosistema oso aberatsa eta oso beharrezkoa dela nabarmentzeko.

Inguruan baditugu ezagunak egiten zaizkigun eta garrantzitsu jotzen ditugun ekosistemak, basoak eta errekek kasu. Kulturalki garrantzia ema-

ten zaie, ustiapen garrantzitsua dute, komunikabideetan presentzia daukate... Gutxi edo gehiago, orokorrean jendarteak barneratuta dauka basoak eta errekek garrantzitsuak direla eta zaindu egin behar direla.

Baina, urmaelak? Sanz-Azkueren hitzetan, «urmaelak, putzuak, gutxiago ezagutzen ditugun ekosistemak dira. XX. mendean barna asko eta asko lehorte eta desagerrarazi egin dira. Kalkulatzen da Estatu espainolean urmaelen %60-70 inguru suntsitu egin direla. Lursail horietan eraikitzeke suntsitu dira nagusiki, lurra irabazteko. Gainera, orokorrean ez dute ospe onik izan. Pentsatu izan da bertan sortzen zirela zenbait gaixotasun».

Ezezagutza, sentsibiltate falta eta sinismen okerrak tarteko, ekosistema horiek birrindu egin dira hamarkadaz hamarkada. «Hezeguneak ura baino zerbait gehiago dira. Ekosistema garrantzitsuak dira, biodibertsitate puntu garrantzitsuak. Espezie batzuentzat nahitaezkoak dira, eta, beste batzuentzat, lagungarriak».

Urmaelak hiru gune garrantzitsu ditu: ura, ura eta lurraren arteko trantsizio eremua, eta urmaelaren ingurua. «Gune horien arabera, espezie batzuk edo besteak topatuko ditugu ekosistema horietan». Hezeguneak, gainera, irla modukoak dira, horietan betetzen diren baldintzak inguruko guneetan ez baitira betetzen. Eta, batez ere, hezeguneetan bizi diren espezieek baldintza oso bereziak behar dituzte bizitzeko, hezeguneetan bakarrik topa daitezkeenak.

«ZERGATIK EZ SORTU ESKOLAN?»

Hezegune baten bueltan espezie mota desberdinak biltzen dira; hegaztiak, buruntziak, saguzarrak, askotariko landaredia... Eta badira, esanda bezala, beren biziraupenerako urmaelak ezinbestekoak dituztenak, anfibioak kasu. «Anfibioena da mundu mailan dagoen ornodun talde mehatxatuena. Gainbehera, gainera, globala da, munduan dauden anfibioen %30 mehatxatuta dago». Datuok oso kontuan hartzekoak dira, anfibioak bioadierazle bikainak direlako. «Ingurunean eta, oro har, ingurumenean gertatzen diren aldaketan adierazle apartak; gertatzen diren aldaketen eta kalteen inguruko pista garrantzitsuak ematen dizkigute», nabarmendu du Sanz-Azkuek.

Hartara, urmaelak urez betetako putzuak baino askoz gehiago direla jakinda, ekosistema horiek garrantzitsuak direla konturatuta, Iñaki Mezquitaren ondorengo gogoetara iritsi gaitezke: «Putzuak sortzea naturari justizia egitea da». Horixe, kendutakoa bueltatzea. Eta, pauso bat aurrera emanda, «zergatik ez sortu eskolan?». Izan ere, eskoletatik gertu hezeguneak sortuz gero, ikasleen eta naturaren arteko harremana estutuko litzateke, urmaela laborategi natural ederra litzateke eta herri horrek biodibertsitatean irabaziko luke.

Ataungo urmaela sortu berri horren atzean gogoeta horiek guztiak daude. Bost metro karratu inguruko hezegune horretan horiek denak kabitzen dira. Horregatik, Lakuako Gobernuak Hezkuntza Sailaren STEAM proiektua-



Haurrak eta gurasoak elkarlanean aritu dira Ataungo Joxemiel Barandiaran eskolako hezegunea prestatzen.
Juanan RUIZ | FOKU

ren baitan kokatzen da Joxemiel Barandiaran eskolako hezegunea. Ez da lehen, beste eskola batzuk ere aritu dira aurretik eta dagoeneko etorkizunera begirako eskariak ere jaso dituzte Aranzadin. Ataungo Udalak lagundu du proiektua eta, esanda bezala, Aranzadi Zientzia Elkartek gidatu du.

Iñaki Sanz-Azkuek oso garbi dauka, «urmaelak hezkuntzarako eta formazioarako aparteko erremintak dira; behaketarako, esperimentaziorako, manipulaziorako, komunikaziorako...».

Gainera, hezeguneek fauna eta flora erakartzen dute eta lekuan lekuko unitate didaktikoak garatzeko aukera



ematen dute. «Bertako espezieak eza-
gutzeko aukera ere bada. Ikerketen ara-
bera, ikasleei animaliak eta landareak
interesatzen zaizkie. Baina, Euskal He-
rriko ikasleek ez dituzte bertako ani-
malia eta landare arruntenak ezagu-
tzen», nabarmendu du Sanz-Azkuek.

Hala ere, urmaelean konpetentzia as-
koz gehiago kabitzen direla garbi dau-
kate Aranzadikoeak. «Hizkuntza, litera-
tura eta komunikazioa; matematika;
zientzia; teknologia; gizartea eta herri-
tartasuna; artea... benetan aukera ugari
eskaintzen dituen laborategi naturala
da». Aurretik izandako esperientzietan
ikusi dutenez, toponimia, orientazioa,
mapen erabilera, historia zein taldeko
lana lantzeko tresna aproposa ere ba-
da.

ESPERIMENTAZIOA ETA BEHAKETA

«Aukera ugari eta oso aberatsak es-
kaintzen ditu urmaelak. Gainera, au-
rreko esperientzietan ikusi dugunez,
haurrek beraiena sentitzen dute, auzo-
lanean egina delako eta hezegunearen
zaindari bihurtzen dira», nabarmendu
du Sanz-Azkuek.

Eta horregatik guztiagatik, teoria ho-
ri guztia ulertuta eta barneratuta, Joxe-
miel Barandiaran eskolako komunita-
teak –guraso, haur eta irakasle-
aitzurrak, palak eta eskuareak hartu
eta txoko bat atondu du urmael bat

sortzeko, ekosistema aberats bat eraiki-
tzeko eta hari begira ikusi eta ikasteko.

Bertako ikasketa burua den Ibon Za-
bala Arrillagaren esanean, «azken urte-
otan, ikasleak konpetentzietan treba-
tzeko garai honetan, konturatzen ari
gara ez daukagula baliabide nahikorik
ikasleak esperientziazioan eta behake-
tan trebatzeko. Eusko Jaurlaritzak ba-
dauka konpetentzia horiek indartzeko
xedea duen STEAM proiektua. Horren
baitan, urmaelarena zen aukera bat eta
hasieratik ikusi genuen oso aukera ona
zela». Ataungo eskolan bederatzi bat
hilabete daramatzate proiektuarekin
buelatka; guraso elkarte, Udala, herri-
ko eragileak... ate asko jo dituzte aitzu-
rrak eskuan hartu aurretik. «Ekosiste-
mak aurrera egiten duen neurrian
denok joango gara ikusten eta ikasten.
Eskolan bi eta hamabi urte bitarteko

«Urmaelak gutxi ezagutzen ditugun ekosistemak dira. XX. mendean barna asko eta asko lehortu eta desagerrarazi egin dira. Kalkulatzen da Estatu espainolean urmaelen %60-70 inguru suntsitu egin direla»

Bertako espezieak ezagutzeko aukera ere bada. Ikerketen arabera, ikasleei animaliak eta landareak interesatzen zaizkie. Baina, Euskal Herriko ikasleek ez dituzte bertako animalia eta landare arruntenak ezagutzen

Ezkerreko irudian, Aranzadiko Iñaki Sanz-Azkue, urmaela egiteko lanetan. Eskuinekoan, eskolako ikasketa burua den Ibon Zabala Arrillaga.
Juanan RUIZ | FOKU

haurrak daude eta adin guztientzat
izango da baliagarria hezegunea, ba-
koitzak bere mailan eta neurrian atera-
ko dio etekina. Mikroskopioak erosi di-
tugu, laginketak egiteko materiala,
salabardoak... aukera ugari eskainiko
dituela espero dugu».

Bitartean, Aranzadiko Ion Garin-Ba-
rriok gertutik segitzen ditu Ataungo
haurren, gurasoen eta irakasleen palak
eta aitzurrak. Kasu honetan, urmaela
sortzen laguntzeko oihala bat jarri dute,
kautxuzko geruza bat, lurraren azpian.
«Lurra nahiko biguna eta hareatsua da
hemen eta normalena da ura iragaztea,
ez putzutzea. Horregatik laguntzen
diogu pixka bat. Behin putzua eginda,
hesiarekin itxiko dugu. Ez dugu beti ix-
ten baina, kasu honetan, eskola ondo-
an egonik eta haurrak tartean direnez,
hesitu egingo dugu. Eta hortik aurrera,
naturak bere lana egin behar du».

Espero dute egun batzuen buruan
zuloa urez betetzea eta prozesua mar-
txan jartzea. «Hezkuntzan lantzen di-
ren zenbait gai tokian bertan lantzeko
oso aproposak dira urmaelak; uraren
zikloa, metamorfosia... aukera ugari es-
kaintzen dituzte hezeguneek. Hilabete
batzuen buruan, urmael eder bat iza-
tea espero dugu Ataunen». Etengabe
berritzen eta aldatzen joango den eko-
sistema bat. Naturak ez baitu inoiz
atseden hartzen.

IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

«Gure mundu-ikuskera oso murrirtza da, gurekin dena bukatuko balitz bezala»

Naturaren behatzailea. Hogeita hamar urte daramatza naturari argazkiak ateratzen; horietatik hogeia eguneko tximeleten atzetik. Azken hamarkadan, baina, burrunztietan, sorgin-orratzetan, espezializatu da.

Urmaelak lapurtu dizkiogu naturari. Zergatik?

Normalean leku zelaietan egoten dira eta horiek aproposak izaten dira eraikuntzarako. Gainera, beti ikusi izan dira leku zikinak bezala, eltxoak-eta ibiltzen direlako inguruan. Baliorik gabeko eremuak bezala ikusi izan dira. Horregatik desagertu dira, desagerrarazten errazak direlako eta garai batean inork ez zuelako urmaeletan erreparatzen.

Nahiz eta ez iruditu, balio handikoak dira, beraz.

Ikaragarritzko balioa daukate, gizarteak leku zikintzat hartzen dituen arren. Kalkulatzen da Europan urmaelen %70 desagertu egin direla.

Eta horrek zein inpaktu dauka?

Urmael bat desagertzen denean, kate trofikoa puskatu egiten da. Pentsa ezazu bertan bizi direla predatzaileak, harrapariak, hegaztiak, anfibioak, burrunztiak, intsektuak... Urmael batean kate trofiko osoa dago jasota. Hori puskatzen denean, animalia batzuk bizitoki gabe geratzen dira. Gainera, ura dagoen tokia beste animalientzat ere toki ona da, ugaztun batzuentzat kasu, bai ura hartzeko eta baita ehiza egiteko ere. Beraz, putzu horiek desagertzean, populazio batzuk isolatu egiten dira eta aukera gutxiago daukate aurrera egiteko. Eta, noski, badaude toki horietan bakarrik bizi diren espezieak. Beraz, toki horiek

desagertzean espezie horiek ere desagertu egiten dira.

Ataunen, bada adibide polit bat. Hemengo harrobietan bada putzutzen den toki bat eta bertan Europan babestuta dagoen espezie bat bizi da: *Coenagrion mercuriale*. Sorgin-orratz txiki bat da, zoragarria.

Intsektu eta animalia txikiek ospe txarra dute. Kostatu egiten da horiei begi onez begiratzea, ezta?

Bai, hori horrela da. Pentsa, burrunztiak jaten dituen animaliak gizaki gehienek nazkagarritzat jotzen dituzte, eltxoak eta... Pertzepzio hori kulturala da. Esaterako, Erdi Aroan hemen arratoiak, beleak, hontzak, saguzarrak eta burrunztiak deabruaren lagunak ziren. Begi handiak dituzte eta jakin-mina dute, eta, kontatzen zutenez, egunez jendeak egiten zituenak erreparatzen aritzen ziren, gero, gauean, deabruari

kontatzeko. Hartara, deabruak pertsona bakoitzaren ahuleziak ondo ezagutzen zituen, zuzenean horietara jotzeko. Ospe txar horrek mende mende segitu du, gaur egunera arte. Mendetako kaltea zuzentzea mendetako lana izango da eta guk pazientzia gutxi daukagu. Gainera, iruditzen zaigu mundua bukatu egingo dela gu bukatzen garenean. Gu bukatuko gara, gu desagertuko gara espezie bezala, baina naturak segituko du. Gu baino handiagoak ere erori dira, dinosauroak adibidez. Guk ezin dugu pentsatu mundua gurekin bukatuko denik. Lurra ez bukatuko, baina bizitzak beste ezaugarri batzuk izango ditu, gu ez garen beste ordezkari batzuk.

Hori ez daukagu batere presente, ezta?

Ez. Guk Bibliak zabaldutako pentsaera presente daukagu. Jaungoikoak esan

zuen, «joan eta lurra menperatu». Gure mundu-ikuskera oso murrirtza da, gurekin dena bukatuko balitz bezala.

Garai batean euskaldunak oso presente omen zuen ez zela lurraren jabe, lurraren parte baizik.

Horrela da. Eta oraindik Asian eta Amerikako toki batzuetan oso presente dago ikuskera hori. Nire ustez, XVIII. eta XIX. mendeetan haustura bat gertatu zen eta pentsaera aldatu egin zen. Bibliaren ikuskera hori, lurraren gainetik egote hori, orduan sartu zen indarrean.

Hori izan da gizakiaren akatsa.


Bai, eta horretan segitzen dugu. Gertatzen dena da zientzia ofiziala beste zientzien atzetik doala. Orain onartzen ari dira duela berrogeita hamar urte klima aldaketaz esaten genuena. Hor atzerapen garrantzitsua dago eta kostatu egingo da gaur egun ikusten ditugun gauzak onartzea. Beste berrogeita hamar urte? Ba, akaso bai. Gainera, gizakiak egin dituen kalteak oraindik ez dira iritsi bere puntu gorenera.

Horren kontzientzia ba ote dute munduan agintzen dutenek?

Pena da, baina munduan gehien agintzen dutenak etorkizuna axola ez zaien pertsonak direla ikusten dut. Etekin politiko azkarrari begira bizi dira eta, gainera, beren bizi itxaropena ere motza da. Esaterako, Trump ez da egongo hemen berrogei urte barru. Orduan, zein kezka edo interes izango du etorkizunarekin? Normala da gazteak mugitzea.

Itxaropenez ikusten duzu gazteak mugitzea?

Bai, baina askotan gazteak pentsatzen du indarrarekin nahikoa dela eta ez da nahikoa. Errespetua edukitzeko ezagutu egin behar da eta ezagutzeko ikasi egin behar da. Oso ondo dago ingurumena defendatzea, baina horretarako maitatu egin behar da eta, maitatzeko, lehenengo ingurumena ezagutu egin behar da.



Juanan RUIZ | FOKU



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:





Jon URBE | FOKU

IKUSMIRA

HERRIAK BETI SALBATZEN DU HERRIA

Aita Mari ontzia bidean da, Mediterraneoko heriotzaren korridorera bidean. Jose Maria Zubia Zigarán marinel eta arrantzaleak eman dio izena proiektuari. Zumaia-rra Aita Mari bezala zen ezaguna eta hark itsasoan egindako salbamenduak sonatuak ziren, ekaitza zegoenean hainbat marinel eta arrantzale itsasotik bizirik ateratzea lortu zuelako. «Herriak beti salbatzen du herria», esaten omen zuen Aita Mari. Ezin geldirik egon itsasoaren zakarrak norbait arrastaka zeramala ikusten zuen bitartean. Gizalegea. Batzuek piztuago eta besteek itzalxeago izaten dute gizalegea. Batzuek aiseago begiratzen dute beste aldera.

Mediterraneoko drama hain da latza, hainbeste bizitza irentsi ditu itsasoak, hain da gogorra egunerokoa, hain urrun ikusten da irtenbidea, hain zurrun daude politikariak, errazena beste aldera begiratzea litzatekeela. Errazagoa da dramei bizkarra emanda lo egitea. Baina lehen Aita Mari zen bezala, orain ere bada herria salbatu nahi duen herria, beste aldera begiratu ezin duena. Bidean da Aita Mari. Ezingo ditu bizitzak erreskatatu itsasoan, giza laguntza emateko baimena bakarrik dauka. Oraindik ikusteko ortzadar asko dituztenei duintasuna erreskatatzen laguntzen badie sikiera. Amagoia Mujika Telleria

SIMULAKROA LAUTADAN

Arabako Lautadan praktikan jarri dute 2020ko Euskaraldiaren metodologia

 **EUSKARA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Datorren urteko Euskaraldiari neurria hartzeko balioko duen “simulakroa” egiten ari dira egunotan Arabako Lautadan. Lautadako Euskararen Komunitateak, tokiko zortzi udalek eta Lautadako Kuadrillak bultzatu dute ekimena.

Simulakroa, 2020ko edizio-rako pentsatu diren figura berriak txertatzen ari direlako jada, proba pilotu bat balitz bezala. Astelehenean hasi zuten ekimena eta itzuli dira ahobizi eta belarriprest txapak Lautadako biztanleen jaketara. Bihar amaituko dute esperimentua eta datorren urtean azaroaren 20tik abenduaren 4ra burutuko den “Euskaraldia, 15 Egun Euskaraz” ariketari aurrea hartuz, ariguneak sortu dituzte, euskara entzun eta erabiltzeko plaza erosoak.

Iazko Euskaraldiak emaitza oso onak eman zituen Lautadan, eta badirudi euskarak aurkitu duela, berriro ere, arnagune txiki bat Arabaren bihotzean, zazpi egunez bederen. Donostiako Intxaurren auzoarekin batera –azaroaren 22tik abenduaren 3ra bitarte egingo dute–, simulakroa martxan jarri duen eremu bakarra da Arabako Lautada.

ARIGUNEAK MARTXAN

Asier Lafuente Lautadako Euskaraldiko koordinatzailea da eta azaldu du ekainaz geroztik ari direla bisitak egiten kolektibo, establezimendu, lantegi eta erakunde publikoetara. Orotara, 113 ate jo zituzten, ariguneak izan zitzaizkion entitateak zirelakoan. Lafuenteren esanetan, nahiz eta konfirmatu gabeko datua den, kalkula-

Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboan ematearen alde egingo du datorren urteko Euskaraldiak, nahiz eta agertuko diren, beste behin, ahobizi eta belarriprest txapak. Bada, Arabako Lautadako herritarrek soinean dituzte jada, Euskaraldiaren simulakroa egiten ari baitira asteen, eta proban jarri dituzte datorren urteko berrikuntzak: entitateetako kanpo eta barne ariguneak.



tzen dute 105 entitatek sortu dituztela barne ariguneak simulakroaren egunetarako, eta ariketaren hirugarren egunean jakinarazi zuten 500 lagun ari zirela barne ariguneetan.

«Barne arigunea funtzionamenduarekin dago lotuta eta entitate batean beti daude talde funtzionalak; enpresa bateko departamendu edo sail bat izan daitezkeenak. Talde horietan denek euskaraz ulertzen badute, aukera dago hizkuntza ohituraren aldaketa bat egiteko», azaldu du. Hala, entitate bakoitza arduratu behar da ariguneak izan daitezkeen talde txoak sortzeaz, kide denak euskaraz ulertzen dutela bermatuta; ostean, iaz bezala, ahobiziek euskaraz egin behar diete beti euskara ulertzen duten guztiei. Beraz, belarriprestek daukate soilik hizkuntza-hautua egiteko aukera.

Baina badaude kanpo ariguneak ere. Kasu horretan, bezero edo herritarrei begira lan egiten duten pertsonak dute hautatutako rola –ahobizi edo belarriprest– betetzeko ardura, izan tabernari, dendari edo administrariak, kasurako. «Entitateak konpromisoa hartu behar du Euskaraldiak iraungo duen bitartean beti egongo dela postu horietan euskaraz ulertzen duen pertsona bat», zehaztu du Lafuente.

ALDAKETA, KOLEKTIBOAN

Hartara, 2020ko Euskaraldiak planteatzen duen eta asteen Araban aplikatzen ari diren sistemak, iaz bultzatutako hizkuntza hautu pertsonala bainoago, aldaketa kolektiboa erdietsi nahi du.

«Entitateen eta ariguneen kontzeptuekin, hasi gara hizkuntza ohiturak aldatzeko baldintza onak sortzen. Argi dago hizkuntza ohiturak inguratzen

gaituen jendeak ere baldintzatzen dituela, hau da, denok erlazionatzen gara talde, egitura edo entitateetan, eta horietan inertzia, ohitura eta arau batzuk ditugu, hizkuntza aldetik ere bai. Orain, bigarren Euskaraldi honetan, hasten da benetakoa bidea aurrera begira hizkuntza ohiturak aldatzeko», nabarmendu du koordinatzaileak.

Aipatu inertziek erdararen alde egiten dute maiz, «hori Lautadan ere gertatzen da», nahiz eta taldeko guztiek euskara ulertu.

Hala ere, ariguneen metodoak funtzionatzen duela azpimarratu du Lafuentek: «Ni galdetzka ibili naiz, eta jendea ariketa egiten ari da. Barne ariguneen kontzeptua oso proposamen ona da gure ustez, nahiz eta hemen mugatuta gauden, dugun egoera linguistikoagatik».

MAIZAGO HOBE

Datuak oso argigarriak dira: iaz Euskaraldia egin aurretik, «euskaraz ulertzen zuten guztiekin edo ia guztiekin eta gehienetan», %44k hitz egiten zuten euskaraz. Ariketaren azken egunean, berriz, zifra %69ra heldu zen, hau da, 25 puntu egin zituen gora –Euskal Herri mailan %20ko igoera izan zen batez beste–. Alta, Euskaralдитik hiru hilabete igaro zirenean, %52ra jaitsi zen euskaraz ulertzen zutenei euskaraz hitz egiten zieten herritar kopurua, ohitura mantentzea, beraz, herritarren %8k lortu zuten.

«Horrek esan nahi du margin handia dugula, jende asko aktibatzen da Euskaraldian, baina gero desaktibatu egiten da. Orduan, nola bihurtu hori ohitura? Bada, ariketak maizago eginez, simulakroak eginez,



Astebetez, bueltan dira ahobizi eta belarriprest txapak Arabako Lautadan. Oraingoan, baina, belarriprest figura indartu nahi izan dute.
Marisol RAMIREZ | FOKU

errepikapenak sortzen baitu ohitura», iritzi du Lafuentek.

Horixe izan zen simulakroa abian jartzearen arrazoietakoa bat, euskararen aldeko hautua epe luzeko ohitura bihurtzea helburu. Izan ere, Euskaraldiak sortzen duen oasi horretatik kanpo, Lautadan euskarak ematen dituen datuak ez dira positiboak. Soilik %55ek ulertzen dute.

«Hemen 650 entitatetik kalkulatu dugu bakarrik 170 entitatetan egon daitekeela arigune bat; orduan, arigunearen

kontzeptua Lautadara ekarrita, hemengo egoera soziolinguistikoarekin, geratzen gara soilik entitateen %25arekin», dio Lafuentek. Argitu du, halaber, geroz eta talde handiagoak sortu orduan eta errazagoa dela euskaraz ulertzen ez duen norbait egotea, eta, kasu horretan, ezinezkoa litzateke barne arigune bat sortzea.

ULERMEN UNIBERTSALA

Hori dela eta, «ulermen unibertsalaren» beharra aldarrikatu du koordinatzaileak.

Iaz, Euskaraldia egin aurretik, herritarren %44k erabiltzen zuten euskara euskaraz ulertzen zutenekin. Ariketaren amaierarako, %69ra igo zen zifra hori

650 entitate inguru daude Arabako Lautadan eta antolatzaileek estimatu dute 105 arigune sortu dituztela simulakroan. Hirugarren egunean, 500 lagun ari ziren barne ariguneetan

«Euskaraldiak proposatzen dituen gauzeekin baditugu muga batzuk, eta horiek gainditu ditzakegu baldin eta neurri makroak etortzen badira instituzioetatik, ulermen unibertsala bizkortzeko eta ez uzteko hezkuntza sistemaren menpe. Ziur aski, 30 urte barru lortuko dugu ulermen unibertsal hori, baina, 30 urte itxaron behar ditugu? Euskara ulertzearekin ate pila bat irekitzen dira eta hori izan daiteke lehenengo helburua», agertu du.

Euskara ulertzea hizkuntza egoera aldatzeko giltza izan daitekeela iritzi du berak, eta, horregatik, 2020ko Euskaraldian garrantzi berezia emango zaio belarriprest rolari. Erronka hori dute Arabako Lautadan, giltza hori ez daukatenean %45 horrek giltza eskuratzea.

Hori baita Euskaraldiarekin helarazi nahi den mezua: «Ulertzearekin soilik ate bat irekitzen zaizu».



Gorka Zozaia- @zotz_
Kimikaria

10.000 urte 200 segundoan

Horratx Googlek eta NASAk konputazio kuantikoarekin lortu duten aurrerapena prozesatze denboran adierazita. Berria duela

hilabete filtratu zuen “Financial Times”-ek konputazioaren alorra astinduz, eta pasa den astean argitaratu du “Nature” aldizkariak ikerketa. Zehazki, egungo superkonputagailu digitalentzat –hots, 0 eta 1 oinarri binario-dunentzat– bideraezina litzatekeen ataza (10.000 urte bota dizkiote iker-tzaileek, nahiz eta IBM konpetentziak bi egun eta erdian egiten ahal dela erantzun duen), 200 segundotan ebartzi du oinarri aberatsagoa duen Sycamore konputagailu kuantikoak. Ataza, zirkuitu kuantiko bat milioi bat aldiz lagintzea izan da, eta, beraz, aurkikuntza honek ez du esan nahi konputazio kuantikoak digitala esparru guztietan gainditzen ahal duenik, baizik eta ataza zehatzetarako eraginkorragoa dela, mundu mikroskopikoa interpretatzeko kasu.

Beharbada, konputatzen zaila den esparru hauetako bat zabalduko du garunaren ikerketak, askotan aipatu dudana ikergai estrategiko honetan ere urrats berriak iragarri baitira. Neuro-nen arteko sinapsiak denbora errealean eta aldi berean aztertzeko teknika berri baten albistea eman du argitara “Science Advances” aldizkariak, ohiko mikroelektrodoen matrizeen ordez, fotoiak erabiltzen dituen. Egungo 200-1.000 neurketak milioika neurketetara eramango ei dira teknika berri honekin eta informazio hori guztia nolabait prozesatu beharko da, giza garuneko 80.000 milioi neuronetan segundoero ematen diren 10.000 milioi operazioak irakurtzera heldu nahi badugu.

Berriro ere, teknikaren zorrozteak munduaren gaineko begirada berri bat dakarkigu eta berorrek adimena-

ren garapen bat ekartzea litzateke hurrena. Konputazioaren esparruan Turing-Church-en tesi zabaldua desafiatu da, esploratu beharreko konputazioaren esparru berri bat zabalduz, eta, berarekin, dirudiena da giza garunaren ezagutza sakontzeak eta prozesadore kuantikoaren paradigma berriak, adimen artifizialari garapen esanguratsu bat ekartzen diela.

Bitartean, gure adimenak konpon-tzerik ez duen mundu honetatik ihes egiteko beharrezkoa den exoplaneten ikerketak eraman du Fisikako Nobel saria eta nork daki bilaketa horrek adimen estralurtarra antzemateko bide ere emango ez ote duen. Apika planeta horietako batetik ariko dira Lurreko bizi adimentsua behatzen eta daukagun kaka nahaste sadikoarekin flipatzen. Gerra anizkoitzean murgildurik, lurretik gero eta deserrotuago, gero eta ziborga-

go, ez dakit planeta honetan zein adimen klase identifikatuko lituzketen.

Gure partetik, logikarako gaitasuna, ulermena, autokontzientzia, ikaspena, ezagutza emozionala, arrazoimena, planifikazioa, sormena, pentsamendu kritikoa eta problemaren ebazpena ditugu adimenaren ulerkera ezberdinak, orokorrean horrela definitu dezakegularik: informazioa antzemateko gaitasuna, ezagutza bezala atxikitze eta testuinguru batean portaera egokitu bat aplikatzeko.

Espero dut estralurtar horiek erreparatuko dietela adimenaren dimentsio ezberdin horiei, eta hautemango dituztela horietan zibilizazio dezente baterako printza batzuk. Nik bederen aste historiko hauetan ikusi ditut argi printza ugari... txinparta berriak, betiko su zaharretik. Helduko al gara mendeetako gatazkak hilabete gutxitan ebazteko moduko prozesadore bat asmatzera? Googlek bederen ez digu erantzun hori emango. •



Helduko al gara mendeetako gatazkak hilabete gutxitan ebazteko prozesadorea asmatzera? GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Aurrez aurre

Badakit zentzu askotan estralurtar samarra naizela –nahiz eta horrek ez nauen askorik kezkatzen–, baina aldi bakarrean erosi dut zerbait Amazonen bitartez eta ez dut orain arte inoiz Airbnb plataforma erabili. Aldiz, baditut inguruan ehunka batailen erreferentziak paparrean eramaten dituzten lagun eta ezagunak, aipatutako plataformetan egun batean bai eta hurrengoan ere bai aritzen direnak axolagabeki.

Era berean, badaukat lagunik lehen Podemita eta orain Bildukoa izanik, hagineta pasta ere Amazonen bitartez erosten duenik. Horiek guztiak ez al dira, bada, jakitun plataforma horrek poliki-poliki –eta hasia da dagoeneko– herri eta hirietako saltokiak desagerraraziko dituela? Eta egoera txarrean, behin beste saltoki guztiak itxita eta aurrera egiteko aukerarik gabe, berau bakarrik egonez gero, sudur puntan jarriko litzaiokeen prezioak ezarri eta hori ordaintzera derrihortuta egongo ginatekeela, gure lepora barre eginguten duten bitartean?

Nik uste koherenteagoak izan behar garela pentsatzen, esaten eta egiten dugunarekin. Baina, antza, nazioarteko eta benetako aurpegiak gabeko plataforma erraldoi horietan kontsumitzeak ez digu inongo kezkarik ezta damurik sortzen. Aldiz, ni bizi izan naizen herrian –eta seguru beste askotan ere– behin baino gehiagotan entzun dut marokoa eta pakistandarrek zabalduetako negozioetan baino, hobe dugula “hemengoan” saltokietan gastua egitea. Serio ari gara? Zer da hemengoa, zer da hangoa, eta nori ari gara gastua egin eta dirua ematen? Izan ere, etxetik edo sakelakotik klik bat eginda erosten dioguna da “hemengoa” ez dena, zergak auskalo non eta zenbat ordaintzen dituen negozio-talde ezagun eta iluna. Eta, aldiz, oso modu kontzientean kontra egin nahi diogu bere herrian bizi izan duen egoera gogorragatik ihesi milaka kilometro egin, bizilekuz

aldatu, gorriak ikusi eta hemen negozio bat aurrera atera edo bertan jarduten duenari. Zer hipokrisia edo oharkabea sartu diguten inozokeria da hori?

Ez naiz neu herrian bertan gehien gastatzen duen horietarikoa; izan ere, janariaz gain, ez dut horrenbeste gastu egiten. Baina gastatzen dudana dendariarekin –nik nahi dudanarekin– hartu-eman aurrez aurre izanda aukeratzen dut, nire herrian, albokoetan, zein bisitatzen dudan horretan.

Gauzei balioa ematen diegu ez daudenean eta egia da gure herrietako saltoki sare gero eta murriztagoa dela; poliki-poliki desagertuz doa. Askotan aipatzen dugu erdiguneetan –eta zer esanik ez– auzoetan lokal huts ugari daudela, lehen baino gehiago; baina ez dugu horren gaineko hausnarketarik egiten.

Saltoki eta bestelako negozioek egunez bizitasuna eta giroa ematen diete herriei; eta gauez, argia eta

Gauzei balioa ematen diegu ez daudenean eta egia da gure herrietako saltoki sare gero eta murriztagoa dela; poliki-poliki desagertuz doa. Egunez bizitasuna ematen diote herriari eta, gauez, argia

segurtasun sentsazio handiagoa. Lanpostuak ere sortzen dituzte, eta askotan ikasketa espezializaturik ez baina lan egiteko borondate ona eta jendarean aritzeko gaitasuna duten pertsonendako bada aukera bat, garrantzitsua laneratze hastapenetan bada. Lehen aipatutako aurpegiak gabeko negozioen aurrean, herrietako komertzioak badauka gertutasun eta konfiantza plusa, edozein hartu-emanerako oinarria dena eta, testuingurua kontuan hartuta errepikakorra badirudi ere, edozein lekutan erosi ezin dena.

Hori guztia, beste inon aurkituko ez duguna, hain merke saltzeko prest gaude? •

Bi urte eta erdi dira Gasteizko Judimendi auzoan joko areto bat zabaldu zutela. Aurtengo udan ateak itxi zituen, aretoko taberna kudeatzeko prest zegoenik aurkitu ez zutelako, antza. Izan ere, aretoa zabaldu zutenetik auzoko Gazte Asanbladak haren aurkako kanpaina bat abiatu ondoren, auzo osoak bere egin zuen borroka hori. Joko aretoa bi hilabetez itxita egon da, baina joan den astetik zabalik dago berriro. Judimendi Gazte Asanbladako kide birekin hitz egin dugu oraindik amaitu ez den borroka horretaz.

Nola eta zergatik hasi zen joko aretoaren aurkako dinamika?

ALAZNE BELTRAN DE LUBIANO: Duela bi urte eta erdi ireki zuten joko aretoa. Jende asko hara joaten hasi zela eta bertan normaltasun osoz kontsumitzen zuela ikusi genuen, tartean gazte asko. Aldi berean, Gasteizen gero eta areto gehiago zabaltzen zitzutela. Judimendiko Gazte Asanbladakook auziari heltzea erabaki genuen.

MIREN ESNAOLA: Ez genuen hori normalizatzerik nahi, joko aretoek sortzen duten ludopatia, menpekotasuna, alegia. Horrez gain, beste gauza asko ikusi genituen, bertako tratu kaskarra, edo inguru horretan droga pasatzen zela...

Eta ikerketa bat egin zenuten.
A.B.L.: Auzo bizitza hiltzen zuen espazio bat zela sumatzen hasi ginen eta Gazte Asanbladak “Auzoan jokoz kanpo” dinamika abiarazi zuen, zenbait fase izan ditue-

na, eta lehenengoa ikerkuntza izan zen, bai. Alde batetik auzoko bizilagunei galdeketa bat egin genien, jokoaren inguruan, joko aretoa zer iruditzen zitzaien... Beste alde batetik, lokala hobeto ezagutu behar genuen, eta bertan ere egin genuen ikerketa, asteko hainbat egun eta ordutan, zer jende mota sartzen zen, bertan zenbat denbora ematen zuen, nor sartzen zen tabernara eta nor joko aretora, eta abar. Ondoren, hango langile ohi batzuekin hitz egiteko aukera izan genuen, eta haien lan-baldintzen berri jakin genuen.

M.E.: Uste genuen baino okerragoak zirela jakin genuen, oso kaskarrak, bai ordutegiei,

bai soldatei dagokienez, nagusia pertsona eskasa zela, batzuek auzitara jo zutela dirua zor zielako...

Auzoko tabernekin ere arazoren bat omen zegoen.

A.B.L.: Lokal horren ordutegia beste edozeinena baino askoz zabalagoa zen, eta, prezioak, askoz merkeagoak, EAEko joko areto kate handi bateko negozioa izanda, horretarako ahalmena baitauka. Ondoko bi tabernek itxi egin behar izan zuten, lehia horri ezin eutsita.

Txosten bat argitaratu zuten, ezta?

A.B.L.: Bai, dinamikaren izen bera duena, “Auzoan jokoz

«Jendeak arazoaren gainean kontzientzia hartzea lortu dugu, gure dinamika ulertzea, joko aretoak benetan zer eragin duen, baita ludopatiatik haratago ere»

kanpo”. Ondoren, bigarren fasea abiarazi genuen, txostenaren sozializazioa, hain zuzen. Horrekin auzoa gai honekin sentsibilizatzea bilatu genuen, metodologia bati jarraituz. Ikastetxeetara eta Adinekoentzako Zentrora joan ginen informazioa ematera... erretirodunen “ibilaldi osasungarriak” egiten genituen, euren dinamikan sartzeko, eta horrek auzoko askotariko lagunekin lan egiteko aukera eman digu.

M.E.: Nik uste dut jendeak arazo horren gainean kontzientzia hartzea lortu dugula, gure dinamika ulertzea, joko aretoak benetan zer eragin duen, baita ludopatiatik haratago ere. Batzuek pentsatu zu-



«Ikusi dugu hau ez zela posible izango auzo bat aretoaren aurka lerratu izan ez balitz, auzo antolakuntzan oinarritutako borroka bat izan ez balitz»

ten ez zutela areto horretan kontsumitu behar, ez menpekotasunagatik bakarrik, baizik eta baita ezagutzen ez zituzten beste kontu batzuegatik ere.

Zer gehiago egin zenuten dinamika horren barruan?

A.B.L.: Sozializazio eta sentsibilizazio fasearen ondoren konturatu ginen egiten ari ginen azken batean gazteon dinamika zela, baina arazo honek auzo gisa eragiten zigula; egiturazko arazoa izanda, auzo mailako borroka izatera salto egin behar zela. Orduan sortu zen “Judimendik joko aretoari ez” auzo plataforma eta denekin, tabernekin eta haietara joaten zen jendearekin eta auzo elkartearekin harremanetan jarri ginen. Prentsaurreko batean plataformaren berri eman genuen. Hilabeteko azken ostegunetan kontzentrazioak egiten genituen joko aretoaren parean, eta soinean eramateko txapa batzuk eta lokaletan jartzeko banderatzok batzuk atera genituen. Horrela borroka honetan auzo guztia batera agertzen zen irudia lortu genuen, agerikoago eginez.

M.E.: Ekainean mobilizazio batera deitu genuen. Joko aretoen kontrako Euskal Herriko lehenengo manifestazioa izan zen, hedabideek esan zuten. Oso potentzia izan zen. Horrekin amaiera eman genion ikasturteari.

Taberna kudeatzen zuenak utzi egin zuen.

A.B.L.: Bai. Alde batetik, joko aretoaren, negozioaren jabea dago, eta, bestetik, taberna kudeatzen duena, alokairuan. Jakina, hainbat hilabetetako mobilizazioen eta ekimenen ondoren, nabaritu zuten gero eta jende gutxiago joaten zela. Gu ere konturatu ginen horre-

taz. Auzoko jai batzuetatik hurrengoetara argi ikusi genuen, zeren, goizeko bostetan edo seietan oraindik zabalik zegoenez, txosnak itxi ondoren jende guztia hara joaten zen, eta, hurrengo urtean, askoz jende gutxiago joan zen.

M.E.: Pintxo-poteetan ere nabaritu zen. Hasieran beteta egoten zen; jakina, oso prezio merkeak zituen. Eta horretan nabaritu dugu sentsibilizazio mailan asko lortu dugula, urte batetik bestera jende pila batek utzi baitio hara joateari; gure borrokara batu da.

Eta, halako batean, itxi egin zuten.

A.B.L.: Manifestazioaren ondoren, udan, lokala itxita topatu genuen. Ez genion gehiegizko garrantzirik eman, baina iraila heldu zen, berriro lanean hasi eta konturatu ginen bazituela bi hilabete itxita. Auzo elkarte-kide batek esan zigun tabernari bat berarekin hitz egitera joan zela, joko aretoko taberna hartzea eskaini ziotela eta gurekin hitz egin nahi zuela.

M.E.: Bazuen dinamikaren berri, eta gurekin akordio batera iritsi nahi zuen. Prezio eta ordutegi normalak jartzeko prest omen zegoen.

A.B.L.: Irailaren erdi aldera prentsaurrekoa egin genuen. Bagenekien azkenean irekiko zutela, baina garaipen txiki bat bezala hartu genuen, eragin sozial nabarmena egon delako, presio soziala, auzo mailako borroka eta antolakuntza egon dira hori gertatu ahal izateko.

Ez zenuten ezer negoziatu?

M.E.: Prentsaurrekoan argi esan genuen arazoa ez direla prezio edo ordutegiak. Harago doa, jokoaren ondorioak dira. Beraz, horren inguruan ez zela ezer adosterik esan genuen.

A.B.L.: Elkarteko lagun horrek esan zigunez, tabernaria prentsaurrekoan egon zen eta atzera egin zuen, ez zuela irekiko esanda.

Eta urriaren 15ean berriro zabaldu zuten.

A.B.L.: Bai, orain hartu dutenek adierazi nahi dute zerbait berria egin dutela, baina badakigu zer den, Premium joko aretoen kateko lokal bera, taberna bezala agertuta benetan dena ezkutatzen badu ere.

M.E.: Nahiz eta aurpegia garbitu nahi izan, lehengo baldintzetan jarraituko dute, ez dakit nori sartu nahi dioten ziria. Hasieratik kontziente ginen oso zaila izango zela Judimendiko joko aretoa ixtea, baina gure ideia, gure zeregin garrantzitsuena sentsibilizazioa zen, mobilizazioa, jendea gerturatzea eta errealtatea ikustea. Bi hilabetean itxita egon da eta hori guretzat garaipen handia da. Joko kate bat da, tartean diru asko dago... bagenekien zeren aurka ari ginen borrokan. Hala ere, izan dugun oihartzuna, baita Euskal Herri mailan ere, gure auzoan adin guztietako jende asko mugitu izana eta jende askok aretora joateari utzi izana lorpen handiak dira.

A.B.L.: Bai, bagenekien besteen kontura aberastu nahi zuen norbait topatuko zutela. Eta nabarmendu beharra dago joko areto hauek legeztatuta daudela, eta gero eta gehiago daudela. Herri mugimenduko kideok aspaldi gabiltza lanean, gero eta dinamika gehiago abiatzen dira, Bilbon, Azpeitian... Kontzientziazio maila bat hartzen ari da gizartea; guk jarraituko dugu, instituzioak interpelatu nahi ditugu.

Izan duzue instituzioekiko harremanik?

ALAZNE BELTRAN DE LUBIANO ETA MIREN ESNAOLA

JUDIMENDIKO GAZTE ASANBLADA

Alazne Beltran de Lubiano eta Miren

Esnaolak azaldu digute Judimendiko Gazte

Asanbladaren izenean Gasteizko auzoan

irekitako joko aretoaren kontrako borroka.

Bi hilabetez itxita egon ostean berriz da

zabalik, baina ez daude etsitzeko prest.

Xabier Izaga Gonzalez

A.B.L.: Oraindik ez. Bilboko Eragineko kideek instituzioetara eraman zituzten zenbait eskakizun, bide hori pixka bat jorratu dute.

M.E.: Borroka hau ez da gazte edo herri mugimenduaren ardurak bakarrik. Herri mugimendua etxeko lanak egiten ari da, baina instituzioek neurriak eta ardurak hartzen ez badituzte, nahiz eta guk borroka hori plazaratu, kontzientziazio maila igo, arazoak jarraituko du, horregatik eskatzen diegu instituzioei neurriak eta ardurak hartzeko konponbide kolektibo bat eman ahal izateko.

Jokoa legala da, eta apustuak boladan daudela dirudi.

A.B.L.: Bai, gehiegizkoa da, eta telebistan eta leku guztietan iragartzen dituzte, kirol taldeek publizitatzen dituzte... Egia da ETBk esan zuela ez zuela horrelako iragarkirik jarriko, baina futbol partidu bat jartzen baduzu, mezu hori bidaltzen ari zara. Lorpen txiki batzuk izan dira herri mugimenduaren borrokagatik, baina azken urteetan joko aretoak ugaritu egin dira, eta ez da arazo larri gisa sumatzen. Hala ere, horren eragina urteak igarota ikusiko da, beste droga batzuekin gertatu den bezala, benetan dakartzan kalteak aurrerago ikusiko ditugu. Ikastetxeetan egin genuen biran ikusi genuen adin txikiko asko jokatzeraz sartzen zirela eta diru pila bat galtzen zutela, baina eurek oso modu normalean ikusten zituzten lokal horiek.

Aurrera begira, ezer erabaki duzue?

A.B.L.: Joko aretoa berriro zabaldu baino lehen egin genuen prentsaurrekoan esan genuen guk geure dinamika honi amaiera eman nahi geniola; hala ere, ez genuela borroka



GAUR8

hau utziko, eta behar denean hor egongo garela, baina ez dugu horren inguruko erabakirik hartu. Garrantzitsua iruditzen zaigu dinamika honetan dabilen jendearekin saretzea eta aliantzak sortzea, borrokak partekatzea, eta sare hauek josten jarraitzeko deia egin nahi dugu, batez ere antolakuntza-aren beharra nabarmenduta. Eta borrokak merezi duela.

Gazte Asanblada izan da borroka honen sortzaile eta eragile nagusia.

A.B.L.: Bai. Bagara borroka honetan aitzindari eta badaukagu ardura bat, ez dugu pentsatu ere egin hau alboratzea. Auzoari begira, garaipen txiki hau baliatu nahi dugu auzo botereaz eta autoantolakuntzaz ere hitz egiteko. Ikusi dugu hau ez zela posible izango auzo bat aretoaren aurka lerratu izan ez balitz, auzo antolakuntzan oinarritutako borroka bat izan ez balitz.

M.E.: Jendea prest dagoela ikusi dugu, eta ezin dugula bat-batean guk sortutako borroka

hau utzi. Uste dugu jende asko mugitu dela, adin guztietako jendea, gurekin batera, eta hausnartu egin beharko dugu orain gure posizioa zein izango den, badakigu beharbada ez ditugula azken bi urteotan adina ekimen egingo, baina oso garrantzitsua da “Judimendik joko aretoari ez” dinamika bizi-rik irautea, behar denean erantzun bat emateko, eta presentzia izateko, baina Gazte Asanbladak auzoan dauden beste problematika batzuez ere arduratu beharra dauka.

«Gazte Asanbladak bere ibilbide propioarekin jarraitu behar du. Jarraitu egingo du auzoan dauden arazoez hitz egiten eta haiei erantzuna ematen»



Honekin uztartuta?

M.E.: Bi urtean joko aretoaren dinamikaarekin ibili gara, eta unea da Gazte Asanbladak, indar eta fruitu hauek hartuta, auzo boterearen inguruan hitz egin eta bestelako borrokak ere ideia honekin lotu eta elikatzeke. Gazte Asanbladak bere ibilbide propioarekin jarraitu behar du. Jarraitu egingo du auzoan dauden arazoez hitz egiten eta haiei erantzuna ematen, azken hoge urteotan egin duen bezala, aurtan baita hogeigarren urteurrena.

GAUR8



ireki gure leihoa

Ordu aldaketaren egokitasuna eta eraginkortasuna mundu mailako eztaba da bihurtu dira azken urteotan. Aldekoak eta kontrakoak aparte utzita, aurten, behintzat, oraindik ordua aldatu beharko da. Hain justu, gaur goizaldeko hiruretan ordu bietara bueltatuko da ordua. Berez, atsedenerako 60 minutu opari. Aldiz, ordu aldaketak maiz ezinegon, nekea eta sumindura sortzen ditu. Izan ere, ordu aldaketak dezente eragiten du aldarlean.

«Pertsonok ordulari biologiko propioa dugu. Nagusiki eguneko argiak erregulatzen du, horrek agintzen ditu esnaaldiak eta loaldiak gure burmuinean. Horregatik, ordu aldaketa bortitz bat gertatzen denean –bidaia bat tarteko edo ordu aldaketagatik kasu– gure ordulari biologikoa desorekatu egiten da eta denbora bat behar du berriz ere bere onera etortzeko», ohartarazten dute adituek.

Baina, zenbat denbora behar du ordulari biologikoak mar-txa ona hartzeko? Berez, ez asko; desfaseko ordu bakoitzeko egun bat. Hartara, larunbategi iganderako ordu aldaketari astelehenerako buelta emateko moduan beharko genuke. Baina hori ez da arau zehatz bat, pertsona bakoitzari modu desberdinean eragiten diolako. Haurrei, adinekoei edota gaixotasunen bat dutenei, gehiago kostatzen omen zaie buelta ematea.

Bestelako kontua da neke edo sumindura horrek astee-tan irauten badu. Psikologo- en esanean, «neguko makalaldi horrek asteak edo hilabeteak irauten baditu, arazoa akaso



Gaur iluntzean ordua aldatu beharko da: hiruretan ordu biak izango dira berriz ere.
GAUR8

ORDU ALDAKETA

Atsedenerako ordubete gehiago, moldatzeko egun bat gutxienez

 JENDARTEA / GAUR8

Badator neguko ordutegia. Ordu aldaketaren aldekoen eta kontrakoen ahotsak isildu gabe daudela, gaur, behintzat, ordua aldatu beharko da. Goizaldeko hiruretan ordu bietara eraman beharko da orratza. Berez, atsedenerako ordu bat gehiago. Baina zergatik askotan nekatuago eta haserrekorrago sentitzen gara?

ez da ordulari biologikoa, bestelako nahaste garrantzitsua- go bat baizik».

Ingelesezt *winter blues* esaten zaio urtaroarekin lotutako nahaste afektibo horri eta herritarren %1 eta %10 artean horren menpe daudela ohartarazi dute. Nahaste horrek ez du berdin eragiten toki guztietan, bizitokiaren ezaugarriek ere badute partea. Hartara, ikerketek azaleratu dutenez, Europa- ko iparraldean, Norvegiar ka-

su, kalte handiagoa sortzen du.

Urtaroarekin lotutako nahaste afektiboaren sintomen artean daude neke kronikoa, energia falta, tristura, inguruarekiko interes falta, lo falta edo gehiegizko loaldiak, aldaketak apetituan, kontzentratzeko zailtasuna, lagunak eta ingurukoak bazterrean uzteko joera edota egonezina. Horren guztiaren ondorioz, nahastea sufritzen duenak bere baitara

biltzeko eta bakartzeko joera izan ohi du. Nahaste afektibo horren inguruan egindako ikerketek ondorioztatu dutenez, melatonina egon daiteke horren guztiaren muinean. Urtaro aldaketetan gorputzean melatonina desoreka bat eman daiteke eta hortik etor daitezke arazoak.

Hartara, argi gutxiago dagoen sasoi- etan –udazkena eta negua– melatonina dosiak hartzeak gorputzari lagun daki- oke erritmo biologikoari eusten. Txanda desberdinetan eta gauez lan egiten duten lan- gileentzat ere lagungarri izan daitekeela ondorioztatu dute ikerketek.

Nahastera iritsi gabe, ordu aldaketak pixka bat aldrebes- ten dituen herritarrentzat ere badaude aholkuak: eguneko argia ahalik eta gehien baliat- zea, aire zabalean ekintzak egitea eta aktibo mantentzea, lo egin aurretik ekintza lasaia- k eta lasaigarriak egitea, gailu elektronikoak ez erabiltzea lo egin aurretik, lagunekin eta fa- miliarekin denbora pasatzea eta arin jatea, adibidez.

Hiru ahizpa

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Baziren behin hiru ahizpa. Gizonetzko bat hurbildu zitzaien, haiek baino helduagoa. Lehenbizi ahizpa zaharrenarekin hasi zen solasean, baina, hagitx atsegin agertu arren, neska ez zen ongi sentitzen berarekin eta ez zion jarraitu. Horretaz ohartuta, erdiko ahizparekin saiatu zen gizona. Baina bere gaztelura gonbidatu zuenean kalabazak jaso zituen berriro.

Ahizpa gazteena gelditzen zitzaion, beraz. Ez zitzaion kosta hura liluratzea. Bien begiak gurutzatu ziren eta neska-
ren denbora han izoztu zen.

Gizonak gerraren batera edo zerbait garrantzitsua egitera atera behar zuela-

eta, gaztelu guztia utzi zion neskari. Giltzatak erraldoi bat luzatuz, zera erran zion: «Ate guztiak ireki ditzakezu, beheko txokoko txikia izan ezik».

Neskak ahizpak gonbidatu zituen eta ederki ari ziren pasatzen ateak banan-banan irekiz, beheko txokoko ate txikiaren aitzinera iritsi arte. Jakin-minari ezin eutsiz, giltzatakoko giltzarik berezienari dardarka heldu eta leunki jiratu zuten sarraila. Ireki orduko itxi zuten atea, zurbil, pertsonen hezurrez beterik baitzegoen gela. Orduantxe iritsi zen gizona eta ahizpa gaztea disimulatzen ahalegindu zen, baina giltza odola isurtzen hasi zen.

Clarissa Pinkola Estes-en “Mujeres que corren con los lobos”-en ipuin bat da, barrenean gordea dudan bezala kontatua. Oroitzen naiz lehenengoz irakurri nuenean gustatu zitzaidala baina ez zidala eragin; bigarrenengoan, ezin izan nuen bukatu min handiegia ematen zidalako. Hirugarren irakurketa bat egiteko gogoia dut orain, disfrutatuz.

Hiru ahizpak pertsona bera izan daitezke garai ezberdinetan, edo pertsona beraren alderdi desberdinak. Hezurak traumak edo krimenak izan daitezke. Giltza odoldua, aldiz, estali, garbitu edo harrika bota dezakegu, baina ez dago jarria gelditzerik. •

Barça-Real Madrid atzeratua!

**Xabier Mikel
Errekondo**

Atzeratu egin dute gaur jokatzekoa zen Barça-Real Madril futbol taldeen arteko partida. Katalunian bizi duten muturreko egoeragatik atzeratu omen dute abenduaren 18ra. Lehiaketa Batzordeak eman zuen agindua. Kontrara, Bartzelona futbol taldeak ez zuen atzerapenerako nahiko arrazoirik ikusten eta Ligan ezarri urriaren 26ko datan jokatzearen alde egin zuen.

Egia esan, niri bost futbolak! Baina, segurtasuna izan da partida atzeratzeko arrazoi eta benetan Lehiaketa Batzordeak hartu al du erabakia?

#TsunamiDemocratic Generalitateko agintariei Auzitegi Gorenak ezarri 100 urteko kartzela zigorrari herritarrek eman erantzuna da. Baina hori baino gehiago da, Generalitatearen eta alderdi independentisten huts egite larriek dezeptzionatu arren kataluniar herria bizi-rik dagoen isla da, demokraziaren eta independentziaren borroka herritarren esku geratu diren isla.

Alabaina, Estatuaren begiak ez dira alferak, eta irakurketa oso garbia du egin: independentismoa ez dago garaitua, oraino, eta ahaleginak eta bi egingo ditu azken hutsa eman duela ziurtatu arte.

Horretarako, lehen eginbeharra hedabideen kontrola du, giza eskubideen aurka-ko nahi beste neurri hartu arren nazioartean estatu demokratikotzat hartua izaten jarraitzeko. Eta, noski, sobera daki Estatuak mundura independentziaren aldarria zabaltzeko erakusleio ezin hobe dela Camp Nou esteladarekin jantzi-ta eta sabela erretzerainoko bere 100.000 eztarrietan “L’Estaca” deiadarra. Gaur partida jokatu izan balitz katala-nentzat emaitza gutxienekoa izango litzateke. Benetan bada inozorik Lehiaketa Batzordearen erabaki hutsa izan dela pentsatzen duenik? •



> Twitter hari bat greba baten inguruan



AFE

Primera Iberdrola ligako futbolariek iragarri dutenez, datorren astean greba egingo dute, patronalak eta sindikatuek ez baitute emakumezkoen futboleko lehen lan hitzarmen kolektiboa sinatzeko akordio-



rik lortu. Oztoporik handiena kontratuen partzialtasuna da. Futbolariek lanaldiaren %100 aitortzeko eskatzen zuten, eta, amore eman ondoren, %75 aitortzeko eskatzen dute, baina, hala ere, Kluben Elkarteak er-

dia proposatzen jarraitzen du oraindik ere.

Futbolarien greba iragarpenak sare sozialetan sorrarazi zuen zalaparta dela-eta, @MenendezFaya Twitter erabiltzaileak modu argi eta txukunean azaldu zuen jokalariek eskatzen dutena, duela lau urte gizonezko jokalariek sinatu zuten futbol profesionaleko hitzarmen kolektiboarekin alderatuz.

Erabiltzaile horren azalpenek oihartzun handia izan zuten. Zortzi ordu eskasetan 6.500 birtxio izan zituen hariak, eta 10.000 “datsegit”.

Zalaparta beste erabiltzaile batek futbolarien borroka maiseatu zuenean hasi zen, langetara ere ez direla iristen, edo Hirugarren Mailako edozein gizonezko jokalarik mila buelta ematen dizkiela argudiatuta.

Andrea Menendez Fayak, hasteko, hitzarmen kolektiboa dokumentu ofiziala dela azaldu zuen, «hala langileak nola enpresaburuak jasotako arau guztiak aplikatu eta betetzera derrigortzen dituen».



> Xistera, kale borroka eta lubakietako pilotariak

El Confidencial hedabide digitalak «independentismo erradikalak» Bartzelonan ustez erabili duen «eskuliburu anti-sistema» delakoaren gaineko “erreportaje” bat argitaratu zuen joan den astelehenean. Egileak dioenez, Katalunian «zesta-punta eskularruak» erabili dituzte Poliziari hariak eta beste gauza batzuk



jaurtitzeko, eta «eskularru horiek» Euskal Herriko kale borrokako profesionalek parte hartu izana erakutsi lezakete.

Fikzioak errealitate arrastorik izan dezake, ordea, eta badira bi pilotari gerran beren trebetasuna erakutsi zutenak: Joseph Apesteguy Txikito de Kanbo, I. Mundu Gerran, eta Victor Ithurria, I. Mundu Gerran.



> Emakumezko gerrillari kurduen ikurra

Delil Souleiman argazkilariak YPJ emakumezko gerrillari kurduen ikurra zeraman soldadu estatubatuar baten irudia hartu zuen Tal Tamr Siria-ko hirian. Gerrillari kurdu horien YPJ unitatea Estatu Islamiakoaren aurkako borrokan nabarmendu zen.

Kurduen aurkako turkiarren ofentsiba odoltsuak benetan irudi lazgarriak utzi ditu: hildakoak, bonbardaketak, ihes-



lariak... Baina Donald Trump-pek agindutako soldadu estatubatuarren atzera-egiteak irudi bitxi eta sinboliko hori ere utzi du.

Trumpen erabakiak AEBetan bertan sortu duen polemikaren metafora izan liteke irudia. Izan ere, ez dira gutxi lehen lerrotik bertatik jihadistiei aurre egin zieten kurduak abandonatu izana egotzi dioten ahotsak.

> Pirinioetako Emakumeen XIX. Topaketa, Ariben


Hemeretzigarrenez egingo dute gaur Pirinioetako Emakumeen Topaketa, oraingoan Aribeko Aezkoako Etxean, “Emakumeak, sarean harremanak sendotzen eneagramarekin” lelopean.

Pirinioetan bizi diren emakumeen «indarguneak ezagutu» eta horiek ahalik eta gehien garatzeko helburua dute antolatzaileek eta, horretarako, eneagrama erabiliko dute, «norbere burua ezaugarritu eta garatzeko baliagarria den zirkulu itxurako tresna bat». Horrela, berta-



ko emakumeen «sare sendo eta iraunkorra» osatzen saiatuko dira larunbatean.

Egun osoko egitaraua osatu dute. Hala, gosaldur ostean, eneagramari buruzko hitzaldi batekin hasiko dute eguna jardunaldietan parte hartuko duten emakumeek. Eguerdian, aipatutako sare sendo eta iraunkorra osatzeko tailer praktikoari ekingo diote eta, egunari amaitzeko, bazkal ondotik, “Gerbera Luchadora” antzerkia taularatuko dute.



> 2002ko iraileko ur-tanketa jendetzaren aurka, Bilbon

Joan den astean Bartzelonan izan ziren Poliziaren oldarraldien inguruko albisteetako bat mossoek lehen aldiz ur-tanketa bat erabili izana izan zen. Zenbait hedabidek esan zuten Estatuan erabili den lehen aldiz izan zela; hala ere, euskal memoria kolektiboan ongi finkatuta dago 2002ko irailaren 14 hartako arratsaldea.



Urarekin batera, gainera, begien narritadura eragiten zuen osagarriaren bat jaurti zuen Erztzaintzak Autonomia kalean Batasuna legez kanpo ezarri izana salatzen ari zen jendetzaren aurka. Ez zen jakin zer sustantzia mota bota zuten urarekin nahastuta, ez baitzen izan gai haren gaineko azalpen ofizialik izan.



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

«Brexit-free»

Udan egindako ikerketa baten ondorioetako baten arabera Sky etxeko albistegiaren ikusleek heren bat albistegiak ekiditen ari ziren. Horietatik %70ek Brexitari leporatzen zioten haien jarraitzaileen arrazoi nagusia, debata politiko amaiezin eta errepikakorrak aspertuta zeudela. Bestalde, %60k ziotenez, albistegiak haien umorean eragina zuten; eta, edozein erabaki eta gertakizunetan eragina izateko inongo aukerarik ez zutela uste zuten %40k, beraz, zertarako denbora galdu.

Testuinguru horretan, Sky etxeak albistegi kate berri bat hasi zuen aurreko astean, Brexitaren inguruko informaziorik gabekoa, egunean bost orduz arratsaldeko bostetatik gaueko hamarrak bitartean. Audientziek esaten zutenari kasu egitea ezinbestekoa zela esan du kateko zuzendariak. Aldi berean, albistegiaren kate berriak kazetaritzaren beste dimentsio batekin esperimentatzeko aukera ematen duela, beste audientzia batzuetara ere iristeko, baita orain artekoak mantentzeko ere. Albistegiaren kate nagusia erabiliko dute, orain artean bezala, Brexitari buruzko kontaketa eta eboluzioarekin jarraitzeko.

Informazio bera behin eta berriro errepikatzearen eragina muturreko bi egokieratan amaitzen da normalean. Bat, entzulea konbentzitzera iristea, ez duelako pareko beste argudiorik bilatzen edo itzalean gelditzen delako beste edozein informazio. Eta, bi, apatia edo desinteresean erortzea entzulea; aspertuta edo nazkatuta dagoelako. Esango nuke tarteko egoera guztiak epe motzean behintzat ez direla oso eraginkorrak izaten.

Kataluniako buruzagi independentisten aurkako sententzia injustuaren inguruko mobilizazio jendetsuek eta elkertasun mugimenduek oihartzun gutxi


izan dute Erresuma Batuan. Brexitaren protagonismoaren kontra lehiatzea ia ezinezkoa dela pentsa genezake, baina banuen itxaropena leku gehiagotan tarte bat egingo ziotela. BBCko albistegiaren aplikazioan, egun batean ordu gutxi batzuetan zehar goiburuen sailean ikusi nuen albiste orokor bat, baina laster ordezkatu zuten beste informazio batekin.

Espero bezala, futbola gailu bezala «erabiliz» irismen handiagoa izan du gaiak Londresen. Pep Guardiola Manchester City taldeko futbol entrenatzaileak oso garbi azaldu ditu beti preso politikoak babestearen eta Kataluniaren erabakitzeko eskubidearen aldeko ikuspegiak.

Besteak beste, Noam Chomsky AEBetako pentsalariarekin batera grabatutako bideo batean giza eskubideen defentsa aldarrikatu zuen duela hilabete batzuk, eta, aurreko astean, bera bakarrik azaltzen zen bideo bat Twitterren zabaldu

zuen Tsunami Demokratiako plataformak. Aldi berean, futbol partida bateko prentsaurrekoa erabili zuen aurreko asteko sententziaren aurka bere iritzia azaltzeko. Milioika pertsonak ikusi zituzten Guardiolen bideo horiek denak (ziurrenik BBCko albistegia ikusi zutenak baino gehiago).

Guardiolen akzioek, eman nahi zuen mezuak baino aipu gehiago sortu zuten –alegia, egokia ote zen prentsaurrekoa erabiltzea gai politiko batez hitz egiteko–, eta horrela ez goaz bide onetik. Hala ere, hori bada behin eta berriro oinarritzeko eskubideak bihurtzen ari den Espainiako Estatuaren ekintzak atzerriko jendeari iristeko modu eraginkorretako bat, ezer ez egitea baino hobeto da zalantzarik gabe. Finean, futbolarik politikak baino jende gehiago mugitzen du eta hor ez dago apatia edo desinteresean erortzeko arriskurik. •



Guardiolari esker Kataluniako egoerak oihartzuna lortu du. OII SCARFF | AFP

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ALBERTO MARTINEZ BENITO. KUTXATEKA

DUELA MENDEBETE, ALBERTO MARTINEZEN KAMERATIK

Alberto Martinez Benito, Bilbon jaioa, oso gaztetatik izan zen argazkigintza zalea. Amparo Elorriaga zeanuriztarrarekin ezkondu eta Donostiara joan zen, Herederos de Damaso Martinez familiaren oihal saltokian lan egiteko, baina, aldi berean, argazkigintza zaletasunari eutsiz. Alberto Martinezek XX. mendearen hasieran egin zituen argazki gehienak. Estereoskopikoak dira, kristalezko plaketako euskarriarekin eginak, paperezko positiboren batzuk ere badituen arren. Euskal Herriaren ikuspegi aparta eta neurri batean erromantikoa zuen, eta Europako beste lekutatik eta AEBetatik zetorren estetika piktorialista. Bere kamerarekin, Alberto Martinezek, askotariko ikuspuntuetatik, besteak beste Biarritz, Donostia, Elantxobe, Durango eta Debako nekazaritza bizimodua, erretratuak eta bistak jaso zituen. Artikulua ilustratzen duen irudia non egina den ezezaguna da, baina Martinezen familiak 2011n Donostiako Kutxatekako funtsetan utzi zuen 200 argazkitik gorako legatuaren parte da.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



Berlin

Harresia; hain gertu, hain urrun

Berlingo Harresia 1989ko azaroaren 9an erori zenean, Alemaniari inkognitaz betetako mundua ireki zitzaion. 30 urteren buruan, gaurko Berlini pultsua hartuko diogu, bere kaleetan barneratuz.

Eta gainera: Txotxongiloak, Txinan galtzear dagoen magia • Etxauriko Haitzetan gora • Yucatan, maien oihanetik kostaldera • Armeniako arantzak eta loreak...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

